

Berriostara

San Martinak

Danborrada,
suzko erroberak...
eta hi heu!



MECA
BERGARA

Amillaga 5
BERGARA
943 76 40 68

RENAULT




scenic

Berrietan berriena



ZURE ETORKIZUNA EUSKARAZ



ESKAITZA

EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE maila guztiak. EGA eta EGAtik gorakoa.

Eskaintza berezia: Guraso, merkataria eta enpresei egokitutako taldeak.

ERRITMOAK

Egunero 2 ordu (iraila-ekaina).
Egunero 3 ordu (iraila-ekaina).
Egunero 5 ordu (iraila-otsaila edo otsaila-ekaina).
Astean bi egunean 2 ordu eta erdi (EGA).
Eskarien arabera, beste erritmo batzuk ere eskain daitezke. Galde ezazu!

16 urtetik gorakoentzat.

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu.

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 08:30-12:30
Arratsaldez: 14:30-19:00

MATRIKULATZEKO EPEA

Irailaren 1etik 17ra.



UDAL

EUSKALTEGIAK

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA • Tel.: 943 76 44 53 • Posta elektronikoa: berg.eusk@udal.gipuzkoa.net



Martin Garitano / Kazetaria

Hogeigarren mendeko azken uda honen azkenengo egunotan zertaz idatzi pentsatzen hasia nintzela, hara non ene neurona lokartuak astintzeko Erromako Aita Santuak zeru, infernu eta purgatorioaz esandakoa begi bistan, prentsa papere-tan, agertzen zaidan.

Goiko plazako San Pedron eta Oxirondoko Santa Marinan hamaikatzoko igande goizetan entzundakoa baino sinesgarriagoa iruditu zait oraintsu Joan Paulo II.ak hil osteko kontuez esandakoa. Ikara guztiak alde batera laga eta trankil asko bizitzeko gonbitea dela dirudi, gainera.

Aipatutako errebelazio horien araber, hipokresiaz jositako gaur egungo moralarekin bat ez gatozenontzat ez omen dauka Pedro Boterok ur irakinez betetako lapikorik. Lasaigarria, benetan!. Eta egungo status quo deitoragarri honekin bat etorri eta, gainera, beste guztioi berau inposatu nahian dabilzantzat ez omen dago ez aulki, ez eta soro bazterrik ere Josafat-eko harane-

an; infernua eta zerua ez omen dira orain arte deskribatu dizkigutenen antzekoak. Eta purgatorioaz ere bada berririk, txepelentzat gorderik dagoen lekua ez baita, uste genuen bezala, beheko estazioko egongela ilun eta aspergariaren antzekoa.

"Egungo status quo deitoragarri honekin bat etorri eta, gainera, beste guztioi berau inposatu nahian dabilzantzat ez omen dago ez aulki, ez eta soro bazterrik ere Josafat-eko haranean; infernua eta zerua ez omen dira orain arte deskribatu dizkigutenen antzekoak"

Kristoren bikarioak dioskunez, paradisia etengabeko poztasuna da, infernua amaigabeko tristura den neurrian. Eta txepelen purgatorioa, nola baiteko egonezina.

Bere azken mintzaldian Joan Paulo II.ak esan duena sinesgarriagoa iruditzen zait, orain arteko deskripzio ikaragarri eta apokaliptikoak beldurrezko ipuin eskas batetik ateratakoak zirudien eta.

Sinesgarriagoa eta, gainera, hurbilagoa. Guregandik oso gertu ikusten ditugun injustizia eta astakeria guztiak ikusita, lasai eta pozik bizi direnak zeruan bizi direla ematen baitu, eta, berriaz, injustizia horien aurrean patxadaz ezin bizi eta, hala nola haien kontra dihardutenek infernuan baino gehiago sufritzen dutela dirudi. Eta txepela, berriaz, beti txepel.

Burutapenak konplikatu samarra badirudi ere, hartu gure presoen kasua, aztertu esandakoaren arabera, eta esandakoaren zentzua argi eta garbi azalduko da.<

barruan



Ivan Iturricastillo

Xake jokalaria

"Goi mailan egoteko orduak sartu eta xakerako dohaia izatea beharrezkoa da"

25.




A. Agirreazaldegia

Bertsolaria

"Bergaran gazte jendia ez doia bertso saiuetara; bertsozaliak auzuetakuak die"

30.



Jesus Aranzabal

Txirrindulari izandakoa

"Kirol oroitzapenik onena? Euskadiko Itzulixan bigarren geratu nintzenekoa"

33.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1764. Irailaren 12an "El borracho burlado" euskaraz eta gaztelera antzestu zen Bergaran.
1909. Irailaren 10ean, hau da gaur, bete ditu 90 urte Martin Gallastegi Aiastuik. Moiuako baserrian jaio zen eta orain Zarautzen bizi da. Eskultorea eta idazlea, euskaraz zein erdaraz idatzi izan du eta hainbat egunkaritako kolaboratzaile izan da: El dia, Euzkadi, Unidad e.a. Hainbat olerki, ipuin eta beste-lako lanak ere idatzi izan ditu.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1425. Irailaren 8an Karlos III.a hil zen Tafallan.
1992. Irailaren 2an Independentziaren Aldeko Udallerri Asanblea osatu zen Bermeon.

MUNDUAN GERTATUA

1972. Irailaren 8an Urrutikako unibertsitatea (UNED) sortu zen Espainian.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitz 3

2-3-31-32-35-41 (osag.5/itz.0)

Astelehena 6

2-3-14-21-36-49 (osag.32/itz.8)

Martitzena 7

1-8-17-22-24-36 (osag.12/itz.7)

Eguaztena 8

4-6-13-23-31-48 (osag.27/itz.0)

PRIMITIVA

Zapatua 4

6-21-30-39-44-48 (osag.14/itz.3)

Domeka 5 Saritzarra

1-4-7-21-25-30 (osag.45/itz.9)

ONCE

Eguakitz 3: 18.745 (081 seriea)

Astelehena 6: 72.940

Martitzena 7: 24.967

Eguaztena 8: 18.711

BESTE BATZUK

Osintxuko jaiak: 4.177

(Mallorcara bidaiak)

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Eguakitz eta zapatuan, urdingu-neak nagusituko dira, goiz partean behelainoa izango den arren. Domekan, okerrera egingo du: zerua estalita izango da, euria egin dezake eta haizeak iparretik joko du; tenperaturak behera egingo du.

Ilargiaren aldiak



Ilberri: irailak 9



Ilgora: irailak 17



Ilbete: irailak 25



Ilbehera: urriak 2

Eguzkia

Domeka, irailak 12



Sortu: 07:55



Gorde: 20:30

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m²
Eguena 2	35	15	--
Eguakitz 3	26	19	1,1
Zapatua 4	29	15	-
Domeka 5	32	14	0,4
Astelehena 6	26	14	11,8
Martitzena 7	27	18	-
Eguaztena 8	33	14	-

bertako berbak

Juan Martín Elexpuru

Asun-berotu

Asunekin emandako blastioa, zenbait gaitzetarako sendagai bezala erabili ohi dena.

- Gripia daukabela? Ori eztok ezer. Kendu errophia ta neuk emungostat asun-berotu bat.



JOSU OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Kapar arriskutsuak

Borreliosisaren epe luzerako ondorioa artritis eta erritmo kardiakoaren asaldura izan litezke. Borreliosis bakteriek sortutako gaisotasuna da eta kaparrek transmititzen dutena. Konklusio horretara iritsi da Dieter Hassler mediku alemaniarra. Hasslerrek dioenez, bakterio horrek (borreliak) immunologia-sistemaren narritadura iraunkorra eragiten du.

Farmaziak

Eguakitz 10:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

Zapatua 11:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Domeka 12:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Astelehena 13:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

Martitzena 14:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

Eguaztena 15:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Eguena 16:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

Ogia

Domeka 12: Konde.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak

DYA	943 78 71 5
Gurutze Gorria	943 76 55 7
Larrialdik	943 46 11 1
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 4
Anbulantzia	943 55 49 2
Udaltzaingoa	943 77 91 0
Ertzaintza	943 76 53 4
Suhiltzaileak	943 76 28 0
Osasun Etxea	943 76 24 4
Arrasateko ospitala	943 03 53 0
Asepeyo	943 76 16 4
Pakea	943 76 13 4
Angiozarko medikua	943 78 90 7
Antzuolako medikua	943 76 62 2

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 3
PESA	902 10 12 0
Taxiak	943 76 19 5
RENFE	943 28 35 3

UDALA

Udaletxea	943 77 91 0
Udal Artxiboa	943 77 91 3
Igerilekuak	943 76 20 5
Kultur Etxea	943 77 91 5
Liburutegia	943 77 91 5
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 0

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 5
Erregistroa	943 76 13 0
Jardun	943 76 36 7
Jubilatuaren Etxea	943 76 21 4
Postetxea	943 76 26 5

zorion agurrak



Amaia Alzelai
Irailaren 14an
4 urte. Urte askotarako!
Familiakoak eta Oihana.



Amaia Mendizabal
Irailaren 10ean
15 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



Andoni Arruti
Abuztuaren 13an
urtebetetzea. Urte askotarako!
Familiakoak eta lagunak.



Amaia Goienetxea
16an 10 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Beñat Vicente
Irailaren 16an
urtebete. Urte askotarako!
Etxekoak.



Olatz Ugalde
Abuztuaren 27an
6 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Iker Muruamendiaraz
13an 30. Urte askotarako eta patxo bat,
Bujias! Koadrila.



Christian Moreno
Irailaren 12an
3 urte. Urte askotarako!
Gurasoak eta Miriam.



Jon Alberdi
Irailaren 1ean
5 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



Leire Agirre
Irailaren 8an
2 urte. Urte askotarako!
Aitaboa eta Saioa.



Itziar Campos
Irailaren 12an
3 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



Andoni Mujika
Irailaren 5ean
6 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



Iñigo Agirrezabal
Irailaren 13an
4 urte. Urte askotarako!
Luis Mari, Ezoi eta Mikel.



Luis Ugarteburu
Irailaren 9an
urtebetetzea. Urte askotarako!
Lagunak.



Martin Mujika
Irailaren 15ean
5 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



Itsaso Calbano
Irailaren 5ean
2 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Iokin Lazpiur
Irailaren 2an 9 urte. Urte askotarako!
Alazne, Amagoia eta etxekoak.



Ainhoa Alonso
Irailaren 11n
10 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Rita Orbe
Irailaren 11n
10 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Unai Gorostidi
Irailaren 13an
6 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Olatz Unamuno
Irailaren 15ean
4 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Eneritz Bikuña
Abuztuaren 27an
5 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Ismene Gorostidi
Irailaren 13an
2 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Aitor Olañeta
Irailaren 13an
3 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.

URTEURRENA

Eulalia Lugarizaristi Zabala

Abelino San Sebastianen alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, irailak 12, goizeko 11:30etan, Antzuolako Errukizko Amaren Parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



ESKER ONA

Rosario Inza Duñabeitia

Bergaran hil zen 1999ko irailaren 6an, 65 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko sendikoen izenean.



hildakoak

BERGARA
Iñazio Gantxegi Gisasola
Irailak 5, 75 urte
Marisun Mujika Barrenetxea-Arando
Irailak 6, 89 urte
Rosario Iza Duñabeitia
Irailak 6, 65 urte
Jose Maria Atorrasagasti Gantxegi
Irailak 8, 75 urte
Daniel Kortabarria Barrena
Irailak 8, 70 urte
Juliana Retolaza Aranzabal
Irailak 8, 84 urte

jaiotakoak

BERGARA
Maddi Arzelus Mariñelarena
Abuztuak 29
Olatz Gabilondo Zenitagoia
Abuztuak 30
Kepa Sebal Lazpiur
Irailak 8

mezak

Santa Marina
Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu
Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu
Domekak: 10:00.

Ubera
Domekak: 10:30.

San Juan
Domekak: 11:00.

Basalgo
Domekak: 13:00.

San Prudentio
Domekak: 10:30.

Labegarieta
Domekak: 11:00.

San Lorenzo
Zapatuak: 20:00.

Angiozar
Domekak: 10:30.
Eguakitza: 19:00.

Monja Zaharrak
Domekak: 19:30.
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde
Domekak: 11:45.
Zapatuak eta lanegunak: 11:45.

Mariaren Lagundia
Domekak: 10:00.

Zapatuak eta lanegunak: 09:00.

Antzuola
Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga
Domeka: 10:00.

*Datorren asteko alean, **IRAILA**ren 17a eta 23a bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.*

ANTZERKIA

► **Boni & Caroli** taldearen "Side car" kale antzerkia gaur, eguakitzan, 22:00etan Elorrioren; bihar, zapatua, ume-entzako antzerkia **Goloka** taldearen eskutik, 17:00etan Plazan eta 22:30etan kale antzerkia **Correfoc-Diables** katalanekin.

MUSIKA

► **Lacrimosa eta Love like blood** taldeen kontzertua bihar, zapatua, Jam aretoan.

ERAKUSKETA

► **Antton Arrilagaren mar-goak** Nahikari tabernan.

LEHIAKETAK

► **Aramaioko Sagitario Saria**, bidaiari handien literatura lehiaketa. Euskara eta gaztelazko kontaketa onenak 120.000 pezeta eskuratuko du. Lanak aurkezteko epea egue-nean bukatuko da. Argibideak 945 44 50 16 zenbakian.

► **Jokin Zaitegi XIII. Itzulpen Laburren Sariketa**. Aurtengo gaia librea izango da eta lehiaketara munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkez daitezke. Testuaren luzera 15-30 orrialde bitartekoa izan beharko da eta lanak jasotzeko epea urriaren

29an bukatuko da. Lehen saria 200.000 pezetakoa da eta bigarrena 100.000 pezetakoa. Argibideak, Arrasateko AED elkartearen. 943 77 12 28.

► **"Gazteak eta 2000. urtea"** argazki lehiaketa, Arrasateko Gazte Zerbitzuak



Salsa, merenge eta reggae erritmoak tartekatuko dira bihar.

DANTZALDIA

Nuestra America

Noiz: bihar, zapatua, irailak 11, 20:00etatik 21:00etara eta 23:00etatik aurrera

Non: San Martin plazan

Bihar plazara hurbiltzen direnek Kari-be aldeko doinuekin dantzan egiteko aukera izango dute Kubako Nuestra America taldearen eskutik. Taldea 1973an sortu zen Matanzas hirian eta ordutik hainbat nazioarteko sari jaso ditu munduan zehar, Europan, Afrikan, Kanadan edo Latinamerikan, besteak beste. Nuestra America zortzi lagunez osatuta dago, eta bere emanaldietan rocka, guaracha, reggaea, merengea edo salsa erritmoak jorratzen dituzte. Horrela, entzuleekin berehalako komunikazioa lortzen dute. Taldekideen ahotsak eta abestien letrek ere berebiziko garrantzia dute. Nuestra America taldeko partaideek Mocadedes taldearen eragina aitortu izan dute behin baino gehiagotan, eta bere ibilbidean bi fetxa nabarmendu behar dira: 1976an Frank Fernandez pianujolearekin

elkarlanean hasi ziren (Fernandez izan da taldearen grabazio guztien zuzendaria) eta, bestetik, 1984an Silvio Rodriguez kantari ezagunarekin batera Teatro Nacionalean emandako kontzertuak bultzada handia eman zion taldeari. Varadero Hotel Internacional delakoan jotzen dute hilean pare bat aldiz; astelehenetan, eta hara joandako turistek euren musikarekin gozatzeko aukera izaten dute.

Taldearen azken diskoak "Sarabanda" izenburua dauka, eta bertan Silvio Rodriguez bera, Angel Quintero, Vicente Feliu, Maikel Sullivan eta Paula Massedaren konposizioak biltzen dira. Biharko emanaldian, Nuestra America taldeak bere errepertorioko lanik ezagunenak eskainiko ditu Plazan.

deituta. Bertan, Deba Garaiko 14-18 bitarteko gazteek eta 19-35 urte bitarteko edozein afizionatuk parte hartu ahal izango du. Zuribeltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira. Lanak entregatzeko epea urriaren 8an amaituko da. 943 77 00 65.

► **XXII. Euskal Zinema eta Bideo Bilera** abenduaren 3an eta 4an Lekeition. Edozein zinegile eta bideogilek izango du parte hartzeko aukera. Pelikulek 8 eta Super 8 formatuan eginak izan beharko dute. Bideoak VHS formatuan aurkeztu beharko dira. Lanak aur-

Deco-Textil ZANGITU

Etzerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta
ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
☎ 943 76 08 69

Bergaraprint

INPRENTA AZKARRA

Hemendik aurrera helbide honetan
gaituzu zure zerbitzura:

Koldo Eleizalde 38-40

Telefona: 943.760.913. Faxe: 943.760.914

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

kezteko epea urriaren 24an bukaturko da. Argibideak, 94 684 12 21 zenbakian.

IKASTAROAK

► **Ardo dastaketa ikastaroa** irailaren 20, 22, 23, 27, 29 eta 30ean, 19:00etatik 21:00etara. Irakaslea Mikel Garaizabal enologoa eta sumillerra izango da. 5.500 pezeta Jarduneko bazkideendako eta 6.000 gainontzekoendako. Plaza mugatuak. Izena emateko azken eguna irailaren 15a izango da. 943 76 36 61.

► **Begirale ikastaroa** urritik maiatzera bitartean, asteburuetan. Matrikula: 30.000 pezeta (35.000 Jarduneko bazkide ez direnentzat). Plaza mugatuak. Argibideak, Jardun elkartean. 943 76 08 19.

► **Bideo ikastaroa** irailaren 20tik azaroaren 4ra bitartean, astelehena, astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 20:00etara. Matrikula: 16.000 pezeta. Plaza mugatuak. Argibideak 943 77 91 58 zenbakian.

DEIAK

► **Bergarara Plataformaren bilera** astelehenean, hilak 13, 20:00etan Arranon, azken gertakarien balorazioa egiteko.

► **EAJ.** Irailaren 26an Alderdi Eguna ospatuko da Salburuako zelaietan. Bergarako EAJk txozna jarriko du eta bazkariak

emango dira bertan. Bazkarirako edo autobusez joan nahi dutenendako izen-ematea irailaren 15era arte zabalik Batzokiko tabernan.

OHARRAK

► **Bedelkarreko harakinen zozketa** irailaren 18an izango da eta ez 11n, hasieran adierazitako moduan.

► **Bergarako Helduen Heziketa** Iraunkorreko ikastetxeak (HHI-EPA) 1999-2000 ikasturterako matrikula epea irekita dagoela jakinarazten du. Irakaskuntza ofiziala eta doanekoa da eta euskaraz zein gaztelaraz ikasteko aukera dago. Irakurketa eta idazmena hobetu, ahaztutako ezaguerak eguneratu, ikastaro interesgarriak egin edo Eskola Ziurtagiria eta Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortzeko interesa dutenek argibide gehiago jaso ditzakete Irizar jauregian, Barrenkale 33an. Goizez, 10etatik 13:00era eta arratsaldez, 18:00etatik 20:00etara. 943 76 44 52.

KINTADAK

► **1950ean jaiotakoen afaria** irailaren 25ean Antxoni jatetxean. Izen-ematea (1.000 pezetako depositoa) bertan.

► **1948an jaiotakoen afaria** irailaren 25ean Txuringo jatetxean. Izen-ematea (6.000 pezeta) Euskadiko Kutxan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Notting Hill
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

ARRASATE. Alai zinema

Notting Hill
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

La amenaza fantasma
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Los lobos de Washington
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Flores de otro mundo

Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.
AZKOITIA. Baztartxo
Piensa en mi
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.

Si quiero

Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

OÑATI. Santana

Si quiero
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

NOTTING HILL

Zuzendaria: Roger Mitchell.

Aktoreak: Julia Roberts, Hugh Grant, Rhys Ifans, James Dreyfus. Bikote protagonista dela medio, azken hilabeteotan takiletan izugarritzko arrakasta lortu duen filmea. *Anna Scott* (Julia Roberts) zine munduko izarrik disdiratsuenetakoa dugu eta *William*, aldiz, (Hugh Grant) bidaia-liburuetan espezializaturiko liburudenda batean ari da lanean. *Anna* denda sartzen den momentutik *William* erabat txundituta geratu da berarekin eta ahalegin guztiak egingo ditu bere ametsetako neska erakartzeko. Zeregin horretan, bere adiskideen laguntza ezinbestekoa izango da...



LA AMENAZA FANTASMA

Zuzendaria: George Lucas.

Aktoreak: Liam Neeson, Ewan Mc Gregor.

Udako estreinurik deigarriena Eibarren ikusteko aukera. Trilogia berri baten aurreneko zatian, Naboo planetari blokeoa ezarriko dio Komertzioaren Federazioak, Sith zaldunen laguntzarekin, galaxiaren kontrola bereganatu nahirik. Efektu berezi aipagarriak.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz.
Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!
Zatoz eta informa zaitetz!

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

Kanpoko bisitariei dagokienez, marka guztiak hautsi dira aurten

Jatetxe asko eta gozotegiak itxita egon direlako kexak izan dira

Aurtengo udan sekula baino turista gehiago ibili da Bergaran. Turismo Bulegoan egin diren kontsulta kopuruak azken urteotako marka guztiak hautsi ditu: iaz baino 1.002 kontsulta gehiago egin dira aurten (%76ko igoera). "Uda honetakoa oso denboraldi arrakastatsua izan da" adierazi du Koldo Pereira Turismo zinegotziak, kanpainaren balorazioa egiterakoan.

Guztira 2.310 kontsulta jaso dira Turismo Bulegoan: 340 bergararrenak izan dira eta beste 1.970 kanpotik etorritakoenak, joan zen urtean baino 925 gehiago. Hauetatik, 444 Euskal Herriko beste toki batzuetakoenak izan dira; 1.146 estatuko hainbat tokitatik etorri direnenak; 305 europarrenak eta 75 munduko beste herrialde batzuetakoenak.

Aurtengo udan Euskal Herri osoan nabarmen egin du gora turismoak, eta hori igarri dugu Bergaran ere. Azpimarratzekoa, mordoan izan direla estatuko hainbat tokitatik etorri direnak. Gorakada horren arrazoi nagusia ETAREN su-etena izan da adituen iritziz. Iaz baino 626 lagun gehiago etorri dira Bergara Kataluniatik, Madrildik, Andaluziatik eta Valentziatik batez ere, baina baita estatuko beste hainbat tokitatik ere. Beste urte batzuetan katalanak izan dira

TURISMO BULEGOAN EGINDAKO KONTSULTAK

	1995	1996	1997	1998	1999
Bergararrak	226	283	531	263	340
Euskal Herrikoak	220	244	302	300	444
Katalanak	262	272	300	196	441
Madrildarrak	106	112	86	92	302
Estatua, gainontzekoa	295	241	150	232	403
Europa eta mundutik	123	81	152	200	380
Sailkatu gabeak	18	22	42	25	-
Bergara kanpotik guztira	1.024	972	1.032	1.045	1.970
GUZTIRA	1.250	1.255	1.563	1.308	2.310

estatutik etorri diren ia guztiak. Aurten, ordea, turista gehienak katalanak izan arren, nabarmentzekoa da Valentziatik 88 etorri direla eta Andaluziatik, berriaz, 78.

Europarren artean, 105 frantses, 49 italiar, 47 Britainia Handiko eta 47 holandar etorri dira Bergarara. Munduko beste herrialde batzuetatik etorritakoen ar-

tean, gehienak Hego Ameriketakoak izan dira, hauen artean Argentinako 22 bisitari.

HOTELAK GAINEZKA

Bisitatu gaituztenak inoiz baino gehiago izan diren bezala, bertan lo egitera geratu direnak ere asko eta asko izan dira. "Abuztuko lehenengo hiru asteetan bete-

ta izan dugu hotela eta baino gehiago kanpoan laga behar izan dugu, tokirik ez geneukalako. Hau ez dugu sekula ezagutu" diosko Mari Karmen Otañok, Arriñoa hoteleko arduradunak. Bergara pentsioan ere bete izan dute abuztuan zehar eta Ormazabal hotelean %95eko okupazioa izan dute. Bestalde, Lamañeo-Etxe-

KONTSULTEN BILAKAERA AZKEN URTEOTAN



berri aurtengo udan zabaldu dute nekazal-turismo etxea eta hau ere beteta izan dute abuztuko lehenengo hiru asteetan. Ariznoa hotelak 44 ohe ditu, Ormazabalek eta Bergara pentsioak 26na eta Lamaño-Etxeberriko nekazal-turismo etxeak 13.

Koldo Pereira Turismo zinegotziak emandako datuen arabera, aurtengo udan Turismo Bulegoan 70 kontsulta atenditu dira, 182 pertsonaren izenean, Bergaran ostatua hartzeko (iaz 22 kontsulta izan ziren, 55 pertsonaren izenean). Bestalde, aurten 72 kontsulta egin dira Turismo Bulegoan, Bergaran bazkaldu edo afaltzeko toki bila zebiltzan 240 pertsonaren izenean. Joan zen urtean, 38 kontsulta izan ziren, 91 pertsonaren izenean. Koldo Pereiraren esanetan, "kanpotik Bergarara etortzen diren turista guztiak ez dira Turismo Bulegotik pasatzen, asko dira bere kabuz herria bisitatu, jatetxea topatu eta hotela hartzen dutenak". Bergarara datorrena kulturalki eta ekonomikoki erdi edo goi mailako turismoa da.

USTEKABE ATSEGINA

Turismo Bulegoan Bergarako eta Euskal Herriko beste hainbat tokitako informazioa emateaz gain, bisita gidatuak ere antolatzen dira. Doan izaten dira. Aurten, 141 gidatutako bisita egin dira eta hauetan 648 pertso-

nak hartu du parte. Iaz, 19 bisita gidatu antolatu ziren eta 61 pertsonak hartu zuen parte.

Bestalde, bisitarien irizkiak ere jasotzen dituzte Turismo Bulegoan. Bisitariak gustora hartzen dute bisita gidatuak doan izatea eta baita bertan eskaintzen den informazioa ere. Bestalde, askok Bergara ezagutu ondoren ustekabe atsegina hartu dutela aitortzen dute. Gure herriak "historia itzela eta monumentu ugari" dituela esaten dute. Horretaz gain, kexak ere jasotzen dituzte Turismo Bulegoan: Bergarako erdialdean bazkaldu eta afaltzeko ia tokirik ez dagoela, errellenoak eta tostoiak erostea ezinezkoa izan zaiela, eta Bergarako oroigarriak eta souvenirrik ia ez dagoela esan dute askok.

BAZKALDU ETA AFALDU?

Herriko hotel, pentsio eta nekazal-turismo etxeko arduradun guztiak bat etorri

"Sektore pribatuak, sortzen den eskaerari erantzuten ez badio, alperrik gabilta"

KOLDO PEREIRA, TURISMO ZINEGOTZIA



Aurtengo udan, iaz baino 122 bisita gidatu gehiago antolatu dira.

ARTXIBOA

dira aitortzekoan abuztuan zehar hainbat zerbitzu itxita izateak eragozpenak sortarazi dizkiela: "lotsagarria da ia jatetxe guztiak eta gozotegiak itxita izatea. Kanpotarrak bazkaldu eta afaltzera nora bidali ezinda ibili gara eta, bestalde, asko izan dira oroigarriak, errellenoak edota tostoiak eskatu dizkigutenak, baina aurten pasteleria denak itxita izan direnez..." esan digu Ariznoako Mari Karmen Otañok.

ARLO PRIBATUA

Arazo honi irtenbidea topatzeko, Koldo Pereira Turismo zinegotziaren ustez, urtea ondo planifikatu behar ko lukete jatetxe eta gozotegietako jabeek eta abuztuan kanpoko bisitariak ganorazko zerbitzua eskaintzeko txandaka zabaldu eta itxi.

Koldo Pereirak emandako datuen arabera Bergarako Udalak 48 milioi pasa inbertitu ditu azken zazpi urteotan turismo arloan. Bulegoan, turismo foiletotan, publizitatean, seinalizazioan eta abarretan gastatu da diru hori. Gainera, herria txukun edukitzeko etxeetako eta monumentuetako fatxadak eta hainbat kale berriztu dira. Horretarako, Bergarako Udalak ia 105 milioi pezeta gastatu ditu. "Udalak planteatu behar ko du inbertsioen alorrean egiten ari den esfortzua beharrezkoa den ala ez. Sektore pribatuak, sortzen den eskaerari erantzuten ez badio, alperrik gabilta".<

Tauletako datuak Bergarako Udalak emanak dira.

BERGARAKO UDALAK TURISMO ARLOAN EGINDAKO INBERTSIOAK

	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	Guztira
Turismoa	-	-	450.00	1.460.000	3.461.000	5.050.000	6.690.000	16.250.000	14.770.000	48.131.000
Osagarriak	700.000	5.870.390	5.087.924	5.227.286	11.003.138	5.178.038	14.400.000	17.550.777	39.630.000	104.647.553
Guztira	700.000	5.870.390	5.537.924	6.687.286	14.464.138	10.228.038	21.090.000	33.800.777	54.400.000	152.778.553

Proiektu berria egingo da Telesforo Aranzadi kalerako

Telesforo Aranzadi eta Irala kaleen arteko eskaile-
rak hormaraino luzatu eta
heldulekuak tokiz aldatze-
ko lanak geldirik daude.
Udalak apirilean adjudikatu
zizkion lanak Construccio-
nes Arreta C.B. enpresari
2.578.100 pezetan. Obrak
maiatzean hasi zituzten, eta
lorategiak kendu zituzten.
Halere, ordutik lanak geldi
daude. Jose Mari Etxeberria
Udaleko aparejadoreak Ber-
rigarari adierazi dionez, ha-
sierako asmoak aldatu eta
aurreikusita ez zeuden bes-
te lan batzuk egitea erabaki
du Udalak. "Kalea zela gera-
tzen den ez zaigu gustatu,
eta, eskaileteran behera go-
azela, ezkerreko aldean, fa-
rolak, bankuak eta arbolak
jarriko ditugu, Zer-Nai kafe-
tegiaren aurrealdearen da-
goen antzera lagatzeko"
esan digu Udaleko apareja-
doreak.

Proiektua, memoria eta
baldintza plegu berriak ia
prest daude, baina, lehe-



Telesforo Aranzadi kaleko obrak geldirik daude.

nengo, hauek guztiak onar-
tu eta obrak adjudikatu be-
harko dira. Ea, bada, behin-
goz, lanok amaitzen dituz-
ten.

URTEAGA 8ko ETXEA BOTA
Bestalde, Urteaga kaleko 8.
zenbakia botatzeko baldin-
tza pleguak onartu zituen
Udalbatzak astelehenean.
4.459.940 pezetako aurre-
kontua onartu zen horreta-

rako. Eskariak aurkezteko
epea atzo, eguena, amaitu
zen eta, beraz, Udalaren as-
moa lanak lehenbailehen
adjudikatzea da. Datozen
egunotan botako da etxea
eta, honenbestez, amaituta
geratuko dira Uhola erreka
bideratzeko lanak. Erreka-
ren bideratze eta San Anto-
nioko bidegurutzearen ur-
banizazio lanak uztailean
amaitu zituzten.

Herriko hiru preso hurbilduko ditu Barne Ministerioak

Espainiako Barne

Ministerioak euskal pre-
soak mugitzeko hartu-
ko erabakiak hiru pre-
sotik bergararri eragingo du
Jose Mari Etxanizi, Ina-
Arietaleanizbeasko
"Bixkai"ri eta Luis Etxe-
berriari. Halere, bakarra
ekarriko dute Euskal
Herrira, "Bixkai", Oe-
rensetik Martutenera
Bestalde, Jose Mari Etxe-
niz Puerto de Santa Ma-
riatik Topasera (Sala-
manca) eroango dute,
eta Luis Etxeberria, Av-
latik Logroñora. Gaine-
rako zazpi presoetako
die eragingo Mayor Ore-
jak iragarritako leku al-
daketak. Kartzelan da-
den hamar bergararri-
tik bakarra dago Euskal
Herrian: Luis Mari A-
kargorta "Kanto" (Marta-
tenen). Madrilera go-
benuak mugituko du-
tuen 105 presoetatik 27
Euskal Herriratuko du-
tuzte; horietatik, bakarra
da bergararra.


Kirola euskaraz programa

Irabazleak behar ditugu!

**Euskaraz denok
irabazten dugu**



Deba arroko Udaletako Euskara eta Kirol Zerbitzuak





Danborrada eta suzko erroberak nagusi

Egitarau zabala prestatu dute aurten San Martinetarako. Asteburu honetan hasi, San Martin egunean eta bezperan segi, eta hurrengo asteburura arte, jai giroa nagusi. Danborrada, suzko erroberak, musika eta bertso emanaldiak, barazki, lora, fruitu eta gazten lehiaketa, eta Bedelkarrek antolatutako herri afaria azpimarratu daitezke.

Zapatua 11

- 19:00: Buruhandi, kiliki eta erraldoien kalejira**, Udal Txistulari Bandak, Kobok dultzaineroak eta Kukumako hankapaluek lagunduta.
- 19:30: Bonba japoniarrak** hau-
rentzat, San Martin plazan.
- 20:00: Kubako Nuestra America** taldearekin dantzaldia San Martin plazan. Gaueko 11etatik aurrera berriz ere dantzaldia.

Domeka 12

- 09:00: XXVI. Ageriko Pintura Lehiaketa**, Beart elkarteak antolatua. Izen-ematea Boluko Arte Elkartearen.
- 18:30: Ageriko pintura Lehiaketako sari banaketa** Boluko Arte Elkartearen. Ondoren, lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa zabalduko da.

Martitzena 14

- 19:00: Xakeko aldibereko jokaldiak** San Martin plazan.

Eguaztena 15

- 17:00: Zirko Txipia** taldeak "Txalo-zirkus" ikuskizuna emango du haurrentzat, San Martin plazan.
- 18:00: Bergarako eskolarteko xake txapelketa**, Zabalotegi dorrean.
- 19:30: Luhartz** taldearekin dantzaldia San Martin plazan.
- 22:30: Nagusien danborradaren irteera**, Udal Musika Bandak lagunduta. Ibilbidea: Seminarioko patioa, Irizar, Barrenkalea, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Barrenkalea eta San Martin plaza.
- 24:00: Rock kontzertua** Eraso! eta π LT taldeekin Fraiskuzturn.
- 00:30: Luhartz** taldearekin dantzaldia San Martin plazan.

Eguena 16

- 08:00: Diana** Udal Txistulari Bandarekin.
- 08:30: Sokamuturra** herriko kaleetan zehar.
- 11:00: Meza Nagusia** San Pedro elizan. Udalbatza joango da, Udal Musika Banda eta Udal Txistulari Bandarekin batera.
- 12:00: Udal Musika Bandaren kalejira.**
- 12:30: Udal Musika Bandaren kontzertua** San Martin plazan. Egitaraua: "Certaemen levantino". Pasodoblea. P. Marquina "Athalia". Obertura. F. Mendelssohn "Nagasaki 1957". Miguel Gonzalez Bastida "The Hunchback of Notre Dame". Soinu Banda. A. Menken "San Martin". Euskal Estanpak. Miguel Gonzalez Bastida
- 17:00: Pilota partiduak** Udal Pilotalekuan.
- 18:00: Xakeari buruzko pintura**, marrazki, komiki eta ipuinen eskolarteko lehiaketa, Zabalotegi dorrean.

- 19:00: Haurren danborrada** Musika Eskolako Bandarekin. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Barrenkalea eta San Martin plaza.
- 20:00: Dantzaldia** Basakabi taldearekin San Martin plazan.
- 22:00: Suzko erroberak** Agorrosinetik.
- 22:30: Dantzaldia** Basakabi taldearekin San Martin plazan.

Eguakitza 17

- 19:00: Bikoteen Dantza Suelto-ko XV. Txapelketa**, Moises Azpiazuren oroimenez, Udal Pilotalekuan.
- 19:00: Blitz-eko Match lehiaketa** (xakea), Zabalotegiko dorrean.

- 22:30: Bertso jaialdia** Jardun elkarteak antolatua. Novedades aretoan. Bertsolariak: Ainhoa Agirreazaldegia, Aitor Mendiluze, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Xabier Silveira. Gai jartzaila: Karlos Aizpurua.
- 24:00: Rock kontzertua** Kaos Etoliko eta Factoria 77 taldeekin San Martin plazan.

Zapatua 18

- 09:30: Barazki, fruitu, lora eta gazta lehiaketa** San Martin plazan.
- 10:00: Goizez eta arratsaldez, xake jaialdia**, eskoletakoa, jubeniletakoa eta unibertsitate mailakoa, Miguel Altuna berriaren.
- 11:00: IX. San Martin txapelketako plater tiraketa**, antzinako abankargazko armekin, Gorlako kantina inguruan.
- 12:00: Irrati kontaktuen lehiaketa**, 24 orduz, domeka eguerdiko 12ak arte, Surra Irratizaleen elkarteak antolatua.
- 12:30: Bergarako odolosteak** dastatzea, Bedelkarrek antolatua. Jose Jabier Igarza, Sebastian Imaz, Jabier Lazpiur (Altzeta), Jose Luis Leturia, Jon Leturia, Luis Mari Retolaza, Pello Urzelai eta Jose Manuel Zurutuza harakinek emango dute prestatuko den odolostea.

- Egunean zehar** txekorra burduntzian erreko da Seminarioko patioan, Bedelkarren laguntzarekin. Bestalde, ardo eta garagardo dastaketa izango da eta Xafre eta Zaharra trikitilariak alaituko dute eguna eta herri afaria.
- 16:00: Euskal Herriko 3. Goiti-behera liga**. Asentziotik Angiozarrerara jaitsiera.
- 16:00: XXXIV. San Martin Txirrindulari Lehiaketa** 23 urtez azpikoentzat, Ibargarai hiribide-tik irtenda. Lokatza Ziklismo Es-

kolak antolatua.

- 19:30: X. San Martin Herri Kro-sa** herriko kaleetatik zehar, San Martin plazatik irtenda.
- 20:00: Bergarako Orfeoia 75. urteurreneko** ospakizunen bukaerako kontzertua, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin batera, Udal Pilotalekuan. Egitaraua: "Opus I obertura". Juan Crisostomo Arriaga "Pastoral". Juan Crisostomo Arriaga "Zerua goian ta lurra bean". J. Eiguren (Hitzak: Gabriel Aresti) "Stabat Mater". Miguel Gonzalez Bastida Zuzendaria: Juan Jose Mena
- 21:30: Herri Afaria**: burduntzian erretako txekor-jana. (Txartelak salgai jarriko dira Bedelkarreko harategietan).
- 23:00: La Parranda** taldearekin dantzaldia Fraiskozuri plazan.

Domeka 19

- 10:00: Goizez eta arratsaldez, Nazioarteko Xake torneo irekia** Miguel Altuna berrian.



Berrigara

378 zenbakia.
1999ko irailaren 10a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Eneko Azkarate, Edu Mendibil.

Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.

Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola, Alex Labaien,
Maripi Laskurain.

Erredakzio kontseilua:
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Alex Labaien, Gorka Elortza.

Komikiak: Bittor Rodriguez,
Gorka Ortega & Jon Alvarez,
Alex Ugaldé, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina,
Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.

Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia:
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azaleko irudia: Udal Artxiboko fondo-
ak lagatakoa. Roman Larrañagaren ar-
gazkitik egokitua. Modeloa: Beatriz
Salamanca.

Tirada: 5.200 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

*Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigara@topagunea.com. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

BAJOIAK DIRELA ETA

Joan zen astean BERRIGARAN argitaratutako "Ke bajon!" idatziak (Alex Barruso) zer pentsatua eman dit.

Egia da, askotan arrazoi gabe izaten garela kexu, edozein huskeriagatik protestatuta, baso bat uretan itota. Baina Alexek dionarekin ere ezin esan nezake erabat ados nagoenik. Izañ ere, beti egongo da norbait nonbait norbera baino okerrago, norbera dagoena baino estuasun handiagoan, ilunaldi sakonagoan, eta orduan, ezin izango genuke inoiz ezertaz arranguratu (oporrrik gabe edo langabezian dagoenak ere ezingo luke protestatu, Afrikan makinatxo bat lagun gosez hiltzen ari den bitartean).

Nik uste dut ezin gaitezkeela besteen baimenaren eta oneritziaren bila ibili kexu izateko, beti izango baita norbait gure arrazoiak aintzat hartzen ez dituen, txikiegi iruditzen zaizkiona; eta, oster, horrek ez du esan nahiko, halabeharrez,


gure protesta bidezkoa ez denik, ixilik hobeto egongo ginatekeenik. Azken batean, ikuspuntu kontua da dena.

Eta ikuspuntuak aipatzen hasita, artikulua ariatik aipatu nahi nukeen beste kontutxo bat ere badago. Alexek ulertarazten duenez, oporrrik hartu ezin dutenek, langabezian daudenek, gaisorik edota kartzelan daudenek gaizki pasatzen dute. Litekeena da, askotan horrela izango da. Baina hori ere erlatibizatzeke modukoa da. Ezagutzen ditut nik lanegunak oporretakoak baino gustorago pasatzen dituzten batzuk, beraien zereginetan buru-belarri sartuta ibiltzen direnak; lanean ez jardun arren ederki bizi direnak ere bai, tristezia askorik gabe; eta gaisorik egotea aitzaki izan eta beselakoan beraien buruaz arduratzeko hainbeste denbora hartuko ez luketenak.

Gauza guztiak direla erlatiboak, alegia.

Jesus Larrañaga

tira biraka: unai azkarate



■ atrebentzia ezpada

Oporraldixa bukatu ostian, aste honetan hasi zate eskolan... Liburu artera itzultzeko gogoz?



Unai Aranzabal

Ez, oporretan askoz be hobeto gabitz eta. Hala ta be, irailleko egun honetan apurtxo bat aspertu egin gara, baiña nahixago neuke oraindio oporretan egotia.



Leire Irizar

Ez daukat gogorik ikastolan hasteko. Motz egin jataz oporrak. Lagunekin elkartuko naiz berriz be eta horixe da onena, baiña, bestela, liburu artian murgiltzia...




Harri Albisua

Ez neukan bat be gogorik eskolan hasteko, oporretan primeran ibili naiz eta. Ikastia ez jat gustatzen. Onena da klaseko lagunak berriz elkartuko garela...



Jone Santamaria

Ez daukat eskolan hasteko gogorik, ikasi eta lanak egin bihar direlako. Beste hiru hillabete egongo nintzake bakaziñotan.



Igor Medrano

Aste honetan hasi dittugu klasiak eta oraindio ez dogu gauza handirik egin. Oporretan askoz be hobeto nenguan.



Nerea Garmendia

Eguaztenean hasi gara eta ikastolara berriz itzultzeko gogorik ez neukan, maisu-maistrak berriz ikustia..., hobe oporretan!

■ bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.

BIDEGORRIA, TENIS PISTA ETA IBILBIDEAK

Jesus Mari Aranzabalek komentario bat egin digu Labegaraietan egin behar duten tenis pista eta bidegorriaren inguruan. Orain dela pare bat aste-edo prentsan irakurritako notziaren inguruan, Jose Marik dio berri ona dela tenis pista eta bidegorriarena. Bere ustez beharrezkoa da ganorazko tenis pista egitea, Bergaran teniserako zaletasuna duen asko dagoelako eta bestela inguruko herrietara joaten direlako. Bestalde, bidegorriarena ideia ona dela aitortu arren, oso ibilbide laburrekoa izango dela dio. Gainera, pasiatzen ibiltzeko edo antxintxikan egiteko, inguruko bide gehiago egokitu behar harko luketela uste du.

Ardo dastaketa

IKASTAROA

Irakaslea Mikel Garaizabal, enologoa eta sumillerra

Egunak Irailaren 20, 22, 23 eta 27, 29, 30 (astelehenak, eguaztenak eta eguenak)

Ardoa eta bere inguruko gai guztiei buruzko ikastaroa Teoria eta praktikarekin



Ordutegia 19:00etatik 21:00etara. Lehen ordua teoria eta bigarrena dastaketa

Lekua Kartzela Zaharra

Prezioa 5.500 pezeta Jarduneko bazkideendako; 6.000 gainontzekoendako.

Gehienezko kopurua 24 lagun

Izena emateko azken eguna Irailaren 15a

Informazioa eta izena ematea 943 76 36 61 / 76 08 19.



Migraina

Bi multzo handitan sailkatzen dira buruko minak: lehen mailako zefalea multzoan, migraina, zefalea tensionala eta zefalea *en racimos* deiturikoa leudeke, eta bigarren mailako multzoan, berriez, azpiko kausa bat (meningitisa, gaisotasun neurologiko bat edota infekzioak) duten buruko minak (zefaleen %1 bakarrik dira bigarren mailakoak).

Lehen mailako zefalea multzoaren barruan zefalea tensionala da ohizkoena: ez dauka zerikusirik odolaren

tentsioarekin eta normalean animoaren alterazioarekin, depresioarekin, lotzen da. Askotan, migraina agertu baino ordubete lehenago-edo, gaisoek aura ize-neko fenomeno izaten dute, eta argiak, iluntasuna, dirdirak eta horrelakoak ikusten dituzte. Hori migraina klasikoa litzateke. Dena den, migraina gehienak aura fenomeno hori gabe agertzen dira. Buruaren alde batean min handia izaten da, botagurea ere bai eta argia zein zarata oso desatsegina gertatzen zaizkie gaisoei. Emakumeen-



VICTOR IRIGOIEN

Medikua

"Migraina ohizkoagoa da emakumeengan eta gaztetatik menopausiara arte irauten du normalean"

gan ohizkoagoa da eta gazte denboran hasi eta menopausiara arte irauten du.

Migraina sufritzeak bizitza kalitatean eragin zuzena dauka. Animoari asko eragiten dio eta lan munduan ere baxa askoren arrazoi izaten da. Bestalde, askok automedikatzeko ohitura daukate eta ondorioz eguneroko zefalea kronikoa agertzen da, medikamentuen gehiegizko erabilera gatik.

Migrainak agertzearen arrazoiak ez dira ezagunak, baina kasu gehienetan (%75) fami-

lia aurrekariak ezagutzen dira. Faktore eragileen artean, estresa, alkohola eta, era berean, tiramina, glutamato monosodikoa edota feniletilamina duten elikiak aipa daitezke. Loaren alterazioek ere eragin zuzena daukate.

Biztanleen %15ak sufritzen duen gaitza da. Migraina izaten dutenei entzutea oso garrantzitsua da, asko sufritzen dute eta. Diagnostikoa argitu eta informazio ona ematea ere funtsezkoak dira. Gaur egun migrainaren kontrako medikamentu egokiak daude.<



Argia eta zaratak oso desatseginak izaten dira migraina sufritzen dutenentzat.

KOFRADIAK

Imanol Sorondo

Nola bizi ote zuten erlijioa parroketan? Gure eliza eta ermitetako datu batzuk badaude eta, horien artean, kofradiak garrantzia handia zeukatela azaltzen da.

Bergaran baziren kofradia zibilak, oihalkin eta labanegileenak adibidez, eta baziren erlijiosoak, ugari. Santa Marinan: Arrosarioko Amarena, Animena, Sebastian eta Roke doneena, San Migelena, San Joserena eta abar. San Pedron, Antzuolan eta Elosun, antzera.

Parroketako kofradia gehienak ondo organizatuta zeuden, eta elizkizun ugari eta errito asko prestatzen zituzten: mezak, prozesioak, anaikide bat hildakoan eginbeharrak, kofradia bakoitzaren berezitasunak, hamabost misterioak arrosarioak errezatzekoa bezalaxe eta abar. Bazituzten beraien maiordomo gidariak eta apaiz kapelaua. Berrigararen behin idatzi nuen modura, San Pedron eta Antzuolan bazeuden disziplinante eta zigortzaileenak.

Kofradia bakoitzean, batez ere handietan, eliztar ugari zegoen, bai gizonezko eta bai emakumezko, eta bazitekeen bi edo hiru kofradiatan egotea. Santa Marinako Sebastian eta Roke doneen kofradian bazeuden XVI. mendean 210 gizonezko eta 120 emakumezko, eta San Pedroko izen berekoan 248 eta 115. Santa Marinan 1751. urtean Arrosarioko Amaren kofradiak 1282 anaikide zituen, jakinik 7 urtetik gorakoek eman zezaketela bere izena kofradia honetan. Anaikide bakoitzak kuota bat ordaintzen zuen urtero eta, horrela, nahiko poltsa polita egiteraino etorri ziren batzuk; Santa Marinan alboetako hiru erretaula egin eta ordaintzeraino, adibidez.<

LA PUERTA AL INGLES, S. L.

1999-2000 IKASTURTEA
MATRIKULA ZABALIK
Kurtso hasiera irailaren 13an

INGELESA nahiz ALEMANA

- Maila guztiak
- 5-7 urtekoentzako hasierako taldeak, astean bi ordu
- Azterketetarako prestakuntza
- Enpresentzako klaseak
- Banakako klaseak



1999ko ekaineko deialdian **Cambridgeko Unibertsitateko Ingeles agiria** lortu duten gure ikasleei **zorionak!**

Preliminary English Test (PET)

20 ikasletik 19k gainditu dute!

Aritz Agirre Mendizabal
 Aroa Agirrezabal Alberdi
 Saioa Altuna Prat
 Jone Arregi Etxaniz
 Maitane Azkarate-Askasua Gamino
 Maider Barrutia Aiastui
 Ainhoa Etxaniz Juaristi
 Josu Gonzalez Lazkano
 Ainhoa Guridi Silanes
 Jokin Guridi Urrutia
 Iban Igartua Romero
 Eneko Juaristi Lasa
 Esther Martinez Saez

Maite Moreno Gonzalez
 Eneritz Muguruzá Epelde
 Oihana Olasolo Orbegozo
 Iker Sanchez Gantxegi
 Saioa Sasiain Guerra
 Lirain Sotil Eguren

Firt Certificate in English (FIRST)

7 ikasletik 6k

gainditu dute!

Aitziber Albistegi Rodriguez
 Ixone Barrutia Urrutia
 Ane Garces Eneriz
 Eva Gomez Lamas
 Leire Jimenez Gonzalez
 Mikel Nin Laskurain

INFORMAZIOA: Burdiñate 5, Bergara Tf. 943 76 30 01

Bertso jaialdia 99

Irailaren 17an

Novedades aretoan 22:30etan

Gai jartzailea
Karlos Aizpurua

Aldez aurretik sarrerak ohizko tokietan salgai.

Aldez aurretik:

800 PTA / Takilan: 1.000 PTA.

Bertsolariak

**Sebastian Lizaso
 Andoni Egaña
 Ainhoa Agirrezaldegui
 Aitor Mendiluze
 Xabier Silveira**

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Europar Batasuneko erakundeak ezagutzen

Bergarako UNED ikastetxean zuzenbide ikasketak egiten ari den ikasle talde batek **Europara bidaia** egin zuen udan, Eusko Jaurlaritzaren eta UNEDen laguntzarekin. **Ana Karmen Azkarate** zuzenbide politikoko irakasle bergararra eta **Walter Luyten** flandestar senatore ohia ikasleekin izan ziren Europar Batasuneko hainbat instituzio gertutik ezagutzen. Luxemburgon Europako Justizia Auzitegia bisitatu zuten eta Bruselan Senatuan eta Europar Parlamentuan izan ziren, besteak beste. Horrez gain, Brujasen eta Ganten ere egon zi-



ren turismoa egiten. Argazkia Bruselan Euskadik duen delegazioan aterata dago. Ezkerraldean, **Alex Agirrezabal** Euskadiko delegatuaren ondoan, **Lierni Laskurain** ikaslea eta **Ana Karmen Azkarate** (laugarrena ezkerraldeetik hasita) bergararrak ikus ditzakezue.

Eginon oporrak luzatzen



Urtero moduan, **Jardun Elkartearen Anbixitika programan** parte hartzen duten 25 gaztetxo (7-11 urte bitartekoak) **Eginoko aterpetxean** izan dira-abuztuaren 31tik 6ra bitartean. Mariaren Lagundia, San Martin eta Aranzadi Ikastolako ikasleekin batera, **Itziar Larrañaga, Irene De Dios, Iñaki Alonso, Nekane Gabilondo, Saioa Ziarso** eta **Maite Usabiaga** begiraleak egon dira bertan, eta guztiak primeran pasatu dute. Eguraldi ona lagun, aktibitateak egiteko aprobetxatu dute, aisialdian euskararen erabilera bultzatuz. Era berean, DBHko D eredurako gertaerazko, 6. mailakoek matematika eta euskarazko klaseak izan dituzte.

Gasteiz Cup torneoan txapeldun



Joma Arkupe alebin mailako futbol taldeak **Gasteiz Cup** txapelketa irabazi zuen uztailan. Bi multzotan banatuta, zortzi talde izan ziren lehiatzaileak eta beraien multzoan nagusitu ondoren, final laurdenetan San Ignacio taldea penaltietatik menperatu zuten; finalerdian, Argentinako Newell's Old Boys taldeari 3 eta 0eko emaitzarekin irabazi zioten, eta Asperen kontrako finalean 4 eta 0 nagusitu ziren. Arrasateko taldea izan arren, **Bergarako sei gaztetxo** aritu ziren Goian, zutik, **Andoni Nafarrete** (bigarrena ezkerretik), **Markel Gomez** (laugarrena), **Xabier Linazisoro, Jokin Balzategi eta Asier Iparragirre** (eskuinean hirurak). Berhean, eskuinaldean, **Aitzol Gomez De Segura**. Txapelketatik kopaz gain, guztiak domina eta diploma bana eskuratu zuten. Fitxaketa onak hauek...



Udazken-herguko kolekzio berria

BASTER

HELBIDE BERRIA: Irala z/g. 943 76 10 08





Oso ondo egin behar dira autoak,
bost urterako bermea eman ahal izateko.

"3+2 Excellent 5 urteko Bermea" programa berriari esker, Nissanek zure ibilgailuaren ohiko bermea 3 urtetik 5 urtera zabaltzeko aukera eskaintzen dizu orain.

Kosto urri baten truke, bost urtean zehar Nissanen bermeaz gozatu ahal izango duzu, baldin eta edozein ezusteko izaten baduzu.

Ikusten duzu. Nissanen sinestuta gaude autoak ondo egiten ditugula. Gainerako guztiak urteak kentzen saiatzen diren bitartean, guk hartu egiten ditugu.



Gidatu eta Gozatu



BLANCO

Amillaga 22
Tf. eta faxa: 943 76 17 35
20570 BERGARA

SAREAN

ZIBERLEKUA

Internet eta informatikako Bergarako gunea

Ohitu zaitez aro berrira!

Win 98 ikastaroa

- Informatikara eta Sistema Eragileraren sarrera-ikastaroa.
 - 12 orduko iraupena.
 - Astelehenetik zapatuta.
 - 20.000 pta.
- Izena emateko azken eguna irailaren 20a.

Bergaran, aro berrira eramango zaituen gunea estreinatu dugu: SAREAN. Internet erabili eta ikasteko. Web guneak programatu eta enpresendako internet soluzioak aurkitzeko. Eta gainera, Word, Photoshop, Excel, Access eta beste aplikazio batzuk erabiltzeko aukera.

Kontsulta itzazu erabilera-tarifak eta prezioak!



Masterreka 13, behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 91 08

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarría, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 42. zenbakia. 1999ko irailaren 10a.

Udal batzordeak banatu dituzte

EHK hiru eta EAJk eta EAK udal batzordeburu bana dituzte

Abuztuko opor aurretik erabakita gelditu ziren udal batzordeak udaletxean. EHk hiru batzorde zuzenduko ditu. EAJk eta EAK, berriz, batzorde bana izango dute. Batzorderik indartsuena Hirigintza batzordea izango da.

Hirigintza, Nekazaritza eta Ingurugiroa eta Ogasuna eta Pertsonala. Hauetxek dira EHko udal ordezkariak zuzenduko dituzten udal batzordeak. EAJk, izango du Kultura-kirola-euskara-gazteria-hezkuntza izeneko batzordea. EAK, berriz, Ongizatea eta Osasuna.


BATZORDEBURUAK

Juan Jose Azkarate dugu Hirigintza batzordeko buru. Azpibatzerdeko buru, berriz, Julen Iparragirre izango da, hau da, zerbitzuetako arduraduna. Bi hauekin batera Jose Angel Zabalo, Jon Kortabarría eta Juan Benitez ere arituko dira. Kultura-kirola-euskara-gazteria eta hezkuntza batzordeko buru Jose Luis Kortabarría dugu. Berarekin arituko dira Josune Irizar, Jose Ignazio Madariaga eta Juan Benitez ere.

Nezakaritza eta Ingurugiroa batzordeko buru Jon Kortabarría dugu. Jose Luis Kortabarría eta EA eta PSEko bi ordezkariak ere arituko dira lanean.

Ongizatea eta osasuna Jose Ignazio Madariagak zuzenduko du Juan Benitez eta Mireia Unamunoren laguntzaz.

Ogasuna eta pertsonala, berriz, Josune Irizarrek zuzenduko du, Jose Luis Kortabarría eta Mireia Unamunorekin batera. ■



Juan Jose Azkarate
Hirigintza



Jose Luis Kortabarría
Kultura-kirola-euskara-gazteria-hezkuntza



Jon Kortabarría
Nekazaritza-Ingurugiroa



Jose Ignazio Madariaga
Ongizatea-osasuna



Josune Irizar
Ogasuna-pertsonala

■ ■ ■
Hirigintza batzordeak azpibatzerdea izango du eta Julen Iparragirre izango da arduraduna
■ ■ ■

Antzuolarrak udako oporretan

Espainia ez ezik, Europa eta Amerika hautatu dituzte jomuga bezala



1.

Udako oporrak pasa berri direla eta, antzuolarrak non izan diren jakin nahi izan dugu. Eta horren testigantza ere lortu dugu. Suitza, Valentzia, EEBBk eta Italia izan dira euretako batzuek hautatu dituzten destinuak. Lekuak ezberdinak izanda ere ondo pasatzea zuten helburu guztiek eta hori behintzat lortu dute. Begira bestela. Agian hurrengo urteko bidaia egiteko ideiak hartu ahal izango dituzue!

Eta gainera, argazkion egileek BERRIGARAK antolatutako argazki-kameraren zozketan ere parte hartuko dute.


1. Igor, Urko, Samuel eta Bergarako Ainhoa eta Amaiak, Murillo herria hautatu zuten. Galleko ibaian rafting egiten izan ziren gazte hauek. A ze nolako abentura...

2. Atlantikoaren beste aldean hautatu zuten Aitorrek oporretarako. EEBBetara abiatu zen emozio berrien bila. Han zegoela itsasontzia hartu eta Askatasunaren estatua bertatik bertara ezagutzera joan zen, jakinala!

3. Agurtzanek, Nereak, Alaitzek, Ainhoa eta Marijok (argazkilaria), berriz, Mediterraneoan hautatu zuten. Baina ez, ordea, hondartza. Turismo kulturala egin zuten eta erromatar aztarnak ezagutzen izan ziren Sagunton.

4. Andoni, Jon, Eñaut, Jesus eta Igorrek ere Mediterraneo aldera jo zuten. Tontorrietan hamabost egun igaro dituzte, baina, aitortu digutenez, ez dira hondartzara gerturatu ere egin. Joan bezain zuzen etorri ote dira?

3.



2.



4.



LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

Igor eta Txomin C.B.

**Margoak
orokorrean**

ANTZUOLA 609 157 131
BERGARA 609 150 164

POLLERUA, BILBORA

Joan den asteartean iragarri zute-nez, Madrilako gobernuak 105 preso kartzelaz mugituko ditu. Tartean Juan Jose Aranburu, "Pollero", dago. Polleroa Madrilako Navalcarnero kartzelan dago gaur egun. Dagoeneko zigorraren hiru laurdenak bete ditu. Hori dela eta, legearen arabera kalean beharko luke izan, orain dela 200 egun baino gehiagotik. Juan Josek ia lau urte daramatza espetxean eta asteartean Mayor Orejak iragarri zuenez, Euskal Herrira ekarriko dute. Lehen ere Gasteizko Langraitzeko kartzelan izan zen. Orain, Basauriko kartzelara ekarriko dute. Berarekin batera beste 26 euskal preso ekarriko ditu Españaiko gobernuak Euskal Herrira.



7.



5. Koadrila hau Eskozian izan da abuztuan zehar. Autobusa alokatu zuten eta behar zituzten tresna denak sartuta alde egin zuten. Ondo baino hobeto pasatu omen dute lurralde hartan.

6. Nora, Aintzane, Nekane, Aitziber eta Leire Suitzan izan dira. Argazkian, Guillermo Tellen omenez egindako elizaren aurrean ageri dira. Hauek ere historia ezagutu nahian!

7. Arkaitz, Iker, Aitor, Estebe eta Julen turismo eta kirola egiten izan dira. Santiago bidea egin dute bizikletaz, Donibane Garazitik irtenda. Guztira, 900 km hama bi egunetan. Jakina, iritsi eta gero, Galiziako giroa ezagutu gabe ezin etorri, ezta?

8. Amaiak, Zegamako lagunak izan zituen ondoan, Italian. Hamabost egunetan hainbat herri bisitatu zituzten. Hemen, Pisako dorrearen inklinazioaren testigantza laga nahi izan digu.



8.

BARAZKI ETA FRUITU ONENAK

Tomas Larrañaga eta Maje Gorritxok, eta Kontxi Izagirrek barazki eta fruta onenen sariak irabazi zituzten joan den asteazkenean, Ordiziako azokan. Lapatzakoek barazki ekologikoak lantzen dituzte orain dela urte batzuk eta badakite zer den horrelako sariak eskuratzea. Kontxi, Bidaurren hazitako frutak aurkeztu zituen, 42 barietate. Aurreko hiru urtetan hirugarren saria lortu izan du Kontxi Ordizian. Aurten azkenean, lehen saria eman diote. Hurrengo zita Bergarako azokan izango da, irailaren 18an.

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Billegia: 943 78 70 40

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak •
- Paper margotuak •
- Mokatak eta tapizatuak •

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32



Domekan, hilak 12 ospatuko da Finalista Eguna.

Finalista eguna domekan egingo da

Zilarrezko ezteiak beteko ditu aurten Finalista Eguna. Izan ere, eta Arrola mendizale elkartearen historiaren arabera, 1974ko irailaren 8an egin zen lehenengo aldiz Finalista Eguna. Domekan ospatuko dena, beraz, hogeita bosgarrena izango da.

Orain dela 25 urte, 1974ko irailak 8an eta Koroso gainean, orduan Federacion Vasco-Navarra zeneko lehendakariak, Pako Iriondok, hainbat domina jarri zien herriko mendizale finenei. Helburua aurreko urtean igotako mendiengatik zoriontzeta zen. Urte hartan jende ugari elkartu zen Koroson egun pasa, jai giroan. laz, ordea, Trekutzen, eguraldi kaskarrak eraginda jende

gutxiago animatu zen mendian Finalista Eguna ospatzera.

EGITARAUA

Goizean goiz mendi irteera egingo dute Arrolakoek. Antzuolako mendietan zehar izango da ibilbidea eta horren ostean Trekutzerera joango dira. Izan ere, han salda beroa eta txistorra banatuko dira mendigoizaleen eta bertarutzen diren guztien artean.

Urteroko bazkaria ere egingo da. Arrolakoek aditzera eman digutenez "norberak eraman beharko du bazkaria". Eurak arduratuko dira mahai eta aukiak ipintzeaz, baina mendian jan nahi duenak etxetik eraman beharko du bazkaria. Arratsalde parterako, jolasak eta erromeria antolatu dituzte. Taberna ere egongo da.

ARGAZKI LEHIAKETA MARTXAN

Bosgarren urtez Udalak antolatutako argazki lehiaketa martxan dago. Udaran argazkiak atera badituzue, oraintxe duzue saria irabazteko aukera. Gaia librea izango da. Udaletxean aurkeztu daitezke argazkiak irailaren 30a baino lehen. Lanak nahi diren neurrikoak izango dira, baina euskarria 30x40 cm-koa izango da eta kartulina krema edo beige kolorekoa. Argazkiak koloretakoak nahiz zuribeltzez egon daitezke. Sariak 25.000 eta 15.000 pta-koak dira.

LANPOSTU ESKAINTZA

Gizarte laguntzailearen lanpostua betetzeko pertsona bat behar da udaletxean. Amatasun baja betetzeko da eskaintza. Gipuzkoako Boletin Ofizialean aurkitu daiteke lanpostu honi buruzko beharrezko informazioa. Bestela udaletxera bertara jo daiteke. Lan eskaerak aurkezteko epea irailaren 15ean, eguaztenean, amaituko da.

AEROBIK SAIOAK

Herritarrek aurten ere aerobik eta mantenimenduko gimnasia egiteko aukera izango dute. Saiok irailaren 13an, astelehenean hasiko dira. Izen ematea udaletxean egin daiteke. Hilero 2.500 PTA ordaindu beharko da eta astean hiru saio izango dira. Aerobika astelehena, martitzena eta egunetan izango da eta mantenimenduko gimnasia, berriz, astelehen, eguazten eta egunetan. Ordu-tegiari dagokionez, eskaintza zabala dago. Izan ere, lau ordu-tan eskainiko dira, goizez bat eta arratsalde-iluntze partean beste hirurak.

EUSKARA IKASTAROAK


Bergarako Akulu-AEK euskaltegiak ikasturte berrirako Antzuolan euskarazko klaseak eskaintzeko asmoa dauka. EGA atera nahi dutenei, guraso edo beste edozeini zuzendua izango da. Interesatuek udaletxera jo dezakete edo 943 76 05 18ra. Azken eguna irailaren 29a izango da.

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatua eta barnizaketa •



Z Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78


Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-urreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

BONARDI BILDUMA

Aukera zabala.
35 modelo baino
gehiago aukeratzeko.

Bakarrik
3.400 Pta.



LENTE PROGRESIBOAK

Berehalako enfoketa eta ikuspen hobezina
distantzia guztietan. Moldaketa
garantizatuarekin

19.500 Pta.
-tik aurrera



Multiofertak MULTIOPTICAS

60 URTE

-TIK AURRERA

Gaztetzen duten modeloeekin kontu ezazu

8.700* Pta.

Montura
+ Kristalak

-tik aurrera




* ± 4 ESF. ± 2 Gk. lente zuriertzako eskaintza.

BETAURREKOAK

UMEENTZAKO

Montura + Kristalak

8.900* Pta. -tik aurrera



Indartutako montura eta ziri biurkorrak

MULTIOPTICAS

EGUZKITARAKO BETAURREKOTAN

DENBORALDIAREN
BUKAERAGATIK

30 *arte* **oton.**



bolle

CK

OXYDO



Ray-Ban

achette

EASSUN

BESTE MARKA BATZUETAZ INFORMA
ZAITEZ



MULTIOPTICAS LARRAÑAGA


Ibargarai, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - ORDIZIA

IRALA AUTOZERBITZUA



Zapatu arratsaldetan eta domeka goizetan zabalik
Irizar pasealekuko 3an gaituzu zeure zerbitzura.
Telefonoa: 943 76 10 71.

ARREGI AROZTEGIA



SUKALDEAK

Arozlan mekanikoak

Ateak

Horma armairuak

Tarimak eta Parketak

Neoprenozko juntadun

egurrezko leihoak

KAPRESA PVCzko leihoak



TAILERRA: Urteaga 20. 943 76 11 73

ERAKUSKETA: Bidekurutzeta 38. 943 76 31 03



ELKAR ELEKTRAGINTZA

ZURE
ZERBITZURA!!

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA

PARRANDARAKO

beta ere izaten da oporretan. Goiko argazkia ikusi besterik ez dago. Eta gazteak bakarrik ez, nagusiak ere primeran ibiltzen dira parrandan. Argazkia Haroko San Felices mendian aterata dago, joan zen ekainaren 29. Bertan, Olatz Ruiz, Angelines Mendoza eta Antonio Mendoza agertzen dira. Itxura batean parranda egun luzea izaten dute Haron ekainaren azkenetan; goizean goiz txarangarekin batera mendira igo eta egunean zehar barrutik zein kanpotik ardoarekin mela-mela egin ondoren, herrira jaitsi eta zezen plazan jaiari amaiera ematen diote. Ezaguna, ezta?



Joan zaizkigu oporrak eta egun horietan han eta hemen ateratako argazkiak betiko gordeko ditugun oroitzen bihurtuko dira. Berrigarak eta Kiñuk irakurleei egindako deiak erantzun ona jaso du eta argazki mordoak jaso dugu erredakzioan. Hemen, aukatuta bat argitaratu dugu. Datorren astean argazkiak bidali dizkigutenean artean Kiñuk emandako Minolta argazki kamera bikaina zozketatuko dugu. Datorren asteke alean ipiniko dugu saritua nor izan den.

Hauxe Uda!

Oporretan ateratako argazkiak



GORKA UGALDE bere ilobaren argazkia bidali digu Elisa Ugartek. Aurtengo oporrak Oriñonen, Kantabrian, eta Pirinioetan igaro ditu. Gorkak 13 urte dauzka eta dagoeneko mendizale amorratua dugu. Osaba-izeben laguntzaz, Monte Perdido gailurra (3.355 metro) egin zuen joan zen abuztuaren 20an. Gorizeko aterpetik Perdido hiru bat ordu eman zituen bergarar espedizioak eta behean eguraldi ona bazen ere, goian haize gogorra zebilen, argazkian ikusten den moduan. Orain dela hiru urte Hiru Erregeen Mahaia eta Auñamendiko gailurrak zapaldu zituen, eta aurten Monte Perdido joateko ilusioa zeukan Gorkak. Pol-Polekin ere sarritan ibilita dago Gorka. Hurrengo gailurra zein ote?

A
R
R
A
N
O**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

**ARRI****Industri
Hornidura**Zubiaurre 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Mugikorra: 670 31 92 44.**MUJIKA**
Jantzidenda

Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



AITOR REMENTERIA ETA MARTIN DE PEDRO

ere mendian ibili dira udan. Uztailla eta abuztua bitartean, hiru astez, Nepalen egon ziren, Annapurnako trekkinga egiten. 15 egun eman zituzten oinez eta 5.416 m.ko altuerara iritsi ziren Martin eta Aitor. Monzoi garaia tokatu zitzairen eta behin baino gehiagotan euripean ibili behar izan zuten lurralde urrun haietan. Eguraldi txarragatik ez zuten Thorung Peak mendira (6.000 m.) igotzerik izan. Bi argazkiak Muktinath herrian (3.800 m.ra) aterata daude. Erreka bertan jaiotzen da eta gas natural aldetik oso aberatsa denez, hinduek erromesaldiak egiten dituzte bertara, izan ere, ura, sua eta lurran garrantzi handia ematen diote. Goian, seminario budista bateko ikasleekin eta Daulaghiri (8.128 m.) atzean dutela ikus ditzakezue. Anekdotak gisa, Pol-Polek bere 50. urteurrena ospatzeko Daulaghirira espedizioa egin zuen 1992an eta, orduan, Damaso Gallastegik taberna bateko liburuan lagatako mezua topatu zuten Aitorrek eta Martinek.

SANTIAGO URTEA

izan da aurtengoa, eta erromes asko izan dira Santiagora hurbildu direnak. Aitzol Mujikak eta Paloma Carrillo bere neskalagunak bizikletaz egin zuten Santo Domingo de la Calzadatik Galiziara bitarteko tartera, 600 bat kilometro. Hamar egun behar izan zituzten iristeko, eta orain hasi berri den Vueltan parte hartzeko moduko sasoa erakutsi zuten biek. Bidean behin baino gehiagotan elkartu ziren Logroño eta Valladolideko hiru lagunekin, eta Astorgan elkarrekin argazkia atera zuten. Beste argazkian Paloma Carrillo agertzen da, Santiagora bidean, Leonen. Santiagon pare bat gau igaro ondoren, trenezituli ziren Aitzol eta Paloma.



URRUTIEN

Ion De Pedro iritsi da. Urtebete Japonen igaro du ikasten, Nagoya hirian eta kurtsoa amaitu zenean Japon ezagutzeko aukera izan zuen. Besteak beste, Yokohama, Tokio edo Kyoto hiriak bisitatu zituen eta, hain zuzen ere, goiko argazkia Kyoton aterata dago. Urtaoren etorrera ospatzeko jai handia egiteko ohitura dago Japoneko hiri guztietan, eta udaren atarian Kyoton egindako jaiak izan zen Ion. Haur eta nagusiak jantzi tipikoekin joaten dira (oso jantzi garestiak ei dira) egun horretan eta dantza ikusgarrieekin ongi-etorria egiten zaio udari. Japoniarrek animatuta, lonek ere dantzan egin behar izan zuen eta, kontatu digutenez, estilo bikaina erakutsi zuen.



Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako
altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.

BERGARA ☎ 943 76 58 86

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA

☎ 943 76 10 57





MENDIRIK MENDI ibili dira udan argazkian ageri direnak. Argazkia Pirinioetako Arlas mendian, Belaguatik gertu, aterata dago joan zen abuztuaren 8an, eta Ekain Sotil, Anartz Agirre, Olatz Gabilondo eta Maider Osa agertzen dira. Atzealdean, Auñamendi (Anie) ikusten da. Belaguatik Arlasera ordubete inguru eman zuten. Pirinioetan astebete igaro zuten eta, besteak beste, Hiru Erregeen Mahaia eta Txamantxoiako gailurretara iritsi ziren. Linzako aterpean zirela, beste lau lagunekin elkartu eta elkarrekin Xera igo zuten. Lehen aipatutakoekin batera Igor Landa, Uxue Zabaleta, XX eta XX ikus ditzakezue. Neke aurpegirik ez dute, behintzat...

klik!



MUNDUKO BESTE MUTURRERA joan beharrik ez dago argazki politak ateratzeko. Kepa Ramos Bergara inguruan ibili da aurtengo udan, eta, argazki makina eskuan, irudi politak harrapatzen saiatu da. Argazkia Debako hondartzan aterata dago eta, itxura batean, Keparen zapatak dira hor agertzen direnak. Imajinatzen dugu uretara oinutsik sartuko zela... Ala hotzegi ote zegoen ura?

ARGENTINAN bergarar koadrila handia bildu zen udan. laz bezala, Nora Palmitano eta Xabier Azkarate Argentinara joan ziren egun batzutarako, eta La Platak Euskal Etxean aspaldiko lagunekin elkartu ziren. Zaldumendi baserriko Bixente Iburguren aspalditik bizi da La Platan, eta lagunartean afari ederra egin zuten abuztu erdialdean. Primeran afaldu ondoren, izan zuten Argentina zein Euskal Herriko kontuez berba egiteko aukera. Igor Basauri bergarar gaztea ere Argentinan ari da lanean, eta herriko berriak jasotzeko irrikan zen. Irudian, ezkerretik eskumara, Bixente Iburguren, Jesus Mari Iburguren, Igor Basauri, Maria Rosa Iburguren, Beatriz Astigarraga, Marutxa, (Bixenteren emaztea), Maria Jesus Baños eta, aurrerago, Migel Arregi, Xabier Azkarate eta Iñaki Aramaio. Jesus Mari, Maria Jesus, Migel eta Maria Rosa senar-emazteak ere Bergaratik joan ziren oporretan.




Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31

Tf. 943 76 20 02

BERGARA



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

"Kirola euskaraz"

programaren urrats berria

Aurtengo ekimenak Deba bailaran egingo dira

"Irabazleak behar ditugu. Euskaraz denok irabazten dugu" lemapean, Deba bailarako euskara eta kirol zerbitzuek beste bultzada bat eman nahi diote 1993an martxan jarritako "Kirola Euskaraz" programari.

Astelehenean kanpainaren nondik norakoak azaldu ziren prentsaurrean Eibarren. Bertan, besteak beste, Nerea Alustiza Eibarko zinegotzia, Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea, Lore Leanizbarrutia Diputazioko Euskara Zuzendaria, Felix Inurrategi eta Naiara Larrea Kirolariak eta Inaki Ugarteburu Udaleko kirol teknikaria. "Kirola Euskaraz" programa duela 6 urte jarri zen martxan kirol munduan euskararen normalizazioa bultzatu nahian.

Ordutik, hainbat eta hainbat ekimen gauzatu dituzte bailarako euskara eta kirol zerbitzuek elkarlanean, euskarazko material didaktikoa (liburuak, fitxak edo bideoak) argitaratuz eta entrenatzaileei zein monitortzei zuzendutako prestakuntza ikastaroak antolatuz.

Egindako lanaren adierazgarri, "Kirola Euskaraz" programak Ibilaldia Saria 98 eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Saria 1997 eskuratu ditu.

BAILARA MAILAN

Orain arte egindako lanaren emaitzak Euskal Herri osora zabaldu badira ere, oraingo



Belaunaldi berriek zeresan asko daukate kirolean euskararen presentzia areagotzeko orduan.

honetan Deba bailaran lan egingo da nagusiki. Programa Eskola Kiroleko monitortzei eta herri bakoitzean lanean ari diren klubetako entrenatzaileei zuzenduta dago. Bi ikastaro mota eskainiko dira: alde batetik, ikastaro orokorrak (edozein kirolean diharduten teknikariei zuzenduak) eta, bestetik, zehazki pilota, esku-baloia eta futboleko saio praktikoa. Irakasleen ize-

**"Piskanaka
kirol munduan
euskararen
presentzia
handituz doa"**

IÑAKI UGARTEBURU

nak zehaztu gabe egon arren, goi mailako kirolari eta entrenatzaileak izango dira saioen arduradunak.

Kanpainaren koordinatzailea Asier Elorza bergararra izango da. Lehenbiziko ikastaro orokorra Bergaran izango da, irailaren 23tik 25era bitartean, eta izenematea Kirol Zerbitzuan (943 77 91 67) egin daiteke. Ikastaroak doakoak dira.

SENTSIBILIZAZIO KANPAINA

Inaki Ugarteburu Udaleko kirol teknikaria hasieratik ari da "Kirola Euskaraz" programan lanean. Bere hitzetan, "programa martxan jarri genuenean ia ez zegoen euskarazko kirol materialik argitaratuta. Garbi daukagu fitxa didaktikoen

argitalpenarekin asmatu egin genuela. Bide horretatik oraindik ere lan asko dago egiteko, baina piskanaka bagoaz oinarritzko bibliografia osatzen eta hori lagungarria gertatuko zaigu kirolean lanean ari garenei. Era berean, jendea ohitzen ari da kirol ikastaroak euskaraz egiten, eta kirol munduan euskararen presentzia handituz doa. Euskarazko komunikabideek eta belaunaldi berriek ere lagunduta dute horretan".

Datozen egunotan, eta "Kirola Euskaraz" programa ezagutzera eman nahian, herritarrei zuzendutako publizitate-kanpaina egingo da hainbat komunikabidetan. Azken helburua kirolaren arlo guztietan euskararen erabilera sustatzea da.

Nesken areto futbolekoeskola martxan

Udalaren laguntzaz, Lagunak elkarteak Nesken Areto Futbol Eskola jarriko du martxan aurtengo denboraldian. Bertan, 8-12 urte bitarteko neskek parte hartu ahal izango dute eta entrenamenduak zapatuetan izango dira, 10:00etatik 12:00etara Miguel Altuna institutuko jolastokian. Izen-ematea irailaren 22ra arte izango da zabalik, Udal Kirol Zerbitzuan (943 77 91 67) edo 943 76 35 80 (Mikel) zenbakian.



Lagunak Goierriren aurka jokatuko du bihar eguerdian Kiroldegian.

ZAPATUAN PARTIDUA

Bestalde, Bergarako Lagunak taldeak Goierriren aurka jokatuko du bihar, zapatua, 12:00etan Labegaraietako Kiroldegian. Adiskidantza partidua izango da biharkoa. Mikel Fernandezek zuzentzen duen taldea liga atarian dago eta bihar taldearen maila neurtzeko

aukera ona izango da. Hemendik bi astera ekingo diote liga txapelketari. Oraindik ez da erabaki Euskal Ligan edo errejional mailan arituko diren. Euskal ligan parte hartzeak Bizkaia eta Arabako taldeen aurka jokatzea ekarriko luke.

JUBENIL MUTILAK

Bestalde, 1981ean edo ondoren jaio eta futbitoan jokatu nahi duten mutilak egiten zaie astelehenean 19:00etan, Kiroldegian, jubencil taldea osatzeko asmoz egingo den entrenamenduan parte hartzeko.

Jubenil mutilak martxan

Bergara K.E.ko lehen mailako jubencil taldeak Urkiren kontra jokatuko du bihar, zapatua, 17:30etan Agorrosin.

San Martin krossa 18an

Datorren zapatuan, hilak 18, San Martin krossaren beste edizio bat jokatuko da. 14 urterarteak 1.700 metro egin beharko dituzte; 15-17 bitartekoak, 4.560, eta 18 urtetik gorakoak 9.120 m.koa. Izen-ematea lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago egin beharko da. Argibideak: 943 76 32 39.

IVAN ITURRICASTILLO/ Xake jokalaria

"Partida azkarrak gustatzen zaizkit gehien"

Zaleak taldeak antolatuta, Xake Astea izango da datorren astean. Xakearen inguruko hainbat ekitaldi iragarri dituzte eta domekan, hilak 19, Nazioarteko Xake Torneo Irekia jokatu da. Ivan Iturricastillo (25 urte) bertan izango da.

G. Zein asmo txapelketarako?
E. Txapelketa horretan afizionatu asko izango gara tartean, eta 2 puntu lortzarekin konformatzen naiz. Garaipen bakoitzeko puntu bat jasotzen da eta maila hobeko jokalariek datozenez, ondo legoke bi partida-edo irabaztea.

G. Zeintzuk dira xakean jokatzen ezinbesteko ezaugarriak?

E. Orduak sartzea beharrezkoa da. Horretaz apart, joku horretarako dohain berezi bat izan behar dela uste dut. Goi mailan egoteko bi ezaugarri horiek izan behar dira. Bestela, bietako bat nahikoa da ni bezalako zaletu bat izateko.

G. Zela entrenatzen zara?

E. Xakelari afizionatua naiz, bigarren mailan jokatu izan dut orain arte eta horretarako ez dago ordu asko sartu beharrik. Lehen baneukan ordenadorean programa bat sartuta eta horrekin ibiltzen nintzen. Dena den, nahiago dut aurrez aurre beste norbaitekin jokatu. Hala ere, nire entrenamenduak txapelketako partidetar mugatzen dira.

G. Zuk zein modalitate nahiago duzu?

E. Aurrez aurreko partida azkarrak gustatzen zaizkit, bost minutu edo ordu erdian mugimendu guztiak egiteko modukoak. Lau orduko partidetan, etsipenez, garaipena eman diezaiokizu aurkakoari.



Golf hasiera ikastaroa

Golf hasiera ikastaroa izango da irailaren 18, 19, 25 eta 26an Arrasateko Musakola Kiroldegian eta urriaren 2an eta 3an, Lagranen, Araban. Argibideak, Kirol Zerbitzuan. 943 77 91 67.

Pala txapelketan txapeldun


Mendizabal eta Unanue zestoarrak izan ziren Kirol Zerbitzuak antolatutako X. Pala Txapelketako irabazleak, finalean Asier eta Andonegi mendarorak 35 eta 18ko emaitzarekin menperatu osten.

Tenis pista eta bidegorria egingo dira aurten Labegaraietako Kiroldegian

Labegaraietako Kiroldegian tenis pista eta bidegorria egiteko lanak hasiko dira laister. Urtea amaitu baino lehen lanak amaitzeko asmoa dauka Udalak.

Joan zen ostiralean tenis pistaren lanak adjudikatzeko plikak zabaldu ziren Udaletxean, eta oraindik konfirmatzeke dagoen arren, baliteke Tenissinco enpresa katalana izatea obraren egilea. Udalak deitutako lehiaketara bost eskari aurkeztu ziren. Obrak adjudikatu eta berehala lanak hastea espero da. Lanean hasi eta bi hilabete inguruko epea izango du enpresak lanak amaitzeko.

Azken urteotan hainbat eskaera jaso dira Udaletxean Bergaran tenis pista egiteko. Tenisak gero eta zaletu gehiago ditu gure artean, eta horren adierazgarri Kiroldegian Zerbitzuak urtero antolatzen duen tenis ikastaroaren arrakasta. Hori ikusita, eta zaletu eskaerari erantzunez, Kiroldegian tenis pista iraunkorra egitea erabaki du Udalak. Orain arte tenisean egin nahi zutenek Kiroldegiko kanpoko pista multideportiboan erabili beharra zuten eta sarea eta osterantzekoak jokalariek beraiek jarri eta erretiratu behar zituzten.



Tenis pista Kiroldegiko kanpoko berdegunean kokatuko da. Azarorako lanak amaituta izango direla espero da.

Pista berria Kiroldegiko berdegunean kokatuko da eta 23x8 metroko neurriak izango ditu. Guztira, 35x17,5 m.ko azalera beteko du, eta berori inguratzeke lau metro inguruko hesi metalikoa jarriko da. Pistaren zorua tenis quick mota-

Bost enpresa aurkeztu dira tenis pista adjudikatzeko deitutako lehiaketara


koa izango da, kolore gorrikoa eta Oñatiko tenis pistetan dagoenaren berdina. Pista erabili ahal izateko Kiroldegian Zerbitzuak prezio bereizketa egingo du bazkideak eta gainerakoekin artean.

BIDEGORRIA

Era berean, Kiroldegian inguratuko duen bidegorria egingo da. Horretarako, asfalto gorri berezia erabiliko dute. Labegaraietako aldera dagoen anfiteatroan hasi eta Kiroldegiaren bestealdean dagoen jolastokirainokoa izango da, Kiroldegian inguratuz. Guztira, 300 metroko bidegorria izango da, oinez-

koek zein bizikletan ibiltzen direnek erabiltzeko egokia. Bidegorri inguruan farolak eta bankuak jartzeko asmoa dago. Urtea amaitu baino lehen lanak bukatuta izatea espero du Udalak.

Udan Matxiategiko Aranzadi Ikastolako patioa asfaltatu zuten, eta datozen egunotan pista markatuko dituzte. Eskubaloian, futbitoan edo boleibolean aritzeko bi pista multideportibo eta mini basketeko beste bat egingo dira. Horri lehendik markatuta zegoen saskibaloiko pista (gimnasioaren atzealdean dagoena) gehitu behar zaio.<



Irizar 2
943 76 14 95

**JAUJA
KIROLAK**

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91



Aldibi autoak, S.A.
Zigarrola 1 • ARRASATE
Tf. 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65

Larkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

99-00 IKASTURTEA

INGELES FRANTSESA ALEMANA


MATRIKULA ZABALIK

Ikasturtearen hasiera: urriaren 4an.

- Talde txikiak.
- Maila guztiak.
- Adin guztiak: gazte, heldu eta...
- **UMEENTZAKO HASIERA IKASTAROAK (6 URTETIK AURRERA).**
- Azterketa ofizialen prestakuntza.
- Hiru hilabeteko ikastaro trinkoak.
- Goizez, eguerdiz eta arratsaldez.




INFORMAZIOA: Bergarako UNED. San Martin plaza z/g (3. pisua) ☎ 943 76 06 87. Bulego ordutegia: 10:30-13:00 eta 16:30-19:30



ANTZUOLAN. HERRI BARRUAN


8 ETXEBIZITZA FAMILIABAKAR
ADOSATUAK, LORATEGIAREKIN
LASTER ERAIKIKO DIRA

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: 943 76 90 00



Aparkalekuak
eta kalea

Lorategi
pribatua



Lorategi
pribatua

Terraza

Ganbara

Logelak (3 edo 4)
+ 2 bainugela

Egongela, jangela eta
sukaldea + komuna

Sarrera, garajea eta
txokoa + komuna

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Masterreka. Amueblatua. 941 24 39 02.

Lizarratik 5 km. ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurre. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Zubiaurre. 943 76 49 30.

Pisua salgai Huelvan, garajeduna. 943 76 40 25.

Madura. 943 76 30 20.

ERRENTAN EMATEKO

Bi oheko logela alokairuan Aretxabaletan. 943 77 12 54.

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

Pisu amueblatua Antzuolan. 943 76 21 06.

Torremolinos. Hondartza ondoan. 943 76 33 58.

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua alokairuan hartuko nuke. 656 71 25 81.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskajerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskajerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

ETXE KONPARTITUAK

Bilbon pisua konpartitzeko laguna behar da. Deitu 943 76 03 21 telefonora.

Bilbon (Arangoitin) pisua osatzeko jendea behar da irailetik aurrera. 943 76 30 93 (Andoni).

Bilbo. Lagun bat edo bi behar dira. 943 76 28 17 / 76 12 14.

Bilbo (S. Inazio). Bi lagun behar dira. 943 77 13 77 / 945 44 50 53.

2. GARAJEAK

SALDU

Garajea salgai Zubiaurren. 943 76 08 89.

Ibargarai. 943 76 00 93.

Garajea salgai Boni Laskurainen. 943 76 18 85.

Garajea salgai Ibargarain. 943 76 44 25.

Martzial Agirren garaje bikoitza salgai. 943 76 33 88.

Garajea saldu edo alo-

katzen da. 943 76 40 03.

Espoloia. Garajea salgai edo alokairuan. 943 76 42 86.

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. 943 76 11 13.

ERRENTAN EMATEKO

Erreformatutako lokal komertziala alokairuan San Pedron. 943 76 57 69.

S. Pedron. 943 76 10 39.

Zubietan 136 m². 943 76 08 18.

Ibargarain, bulego lanetarako prestatuta. 607 34 46 58.

Lokala Martokon, prezio onean. 943 76 11 13.

4. LANA

ESKAITZAK

Etxeko lanak edo haurrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Ana).

Mutila lanerako gertu. 943 76 04 40.

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Pertsona nagusiak zaintzen ditut gauez. 610 01 06 19

Neska batek garbiketa lanak egin edo denda batean lan egingo luke. Deitu 943 76 35 38 telefonora.

Arratsaldez lan egingo nuke. 943 76 52 39.

Emakumeak etxeko lanak edo atariak garbitu. 619 52 98 04.

Emakume esperientziadunak denda lan egingo luke. 943 76 07 69.

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 943 76 10 94 (arratsaldez).

Neska edozein lanetarako gertu, arratsaldez. Deitu 943 76 00 24 telefonora.

Emakume erdaldun batek nagusiak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. 943 76 09 33.

Umeak zainduko nituzke arratsaldez. 943 76 34 48 (Mayra).



Antzuolako udala

Antzuolako udala

Lanpostu eskaintza

Antzuolako udalak aldi baterako langilea hautatu behar du, oposizio-lehiaketa bidez, gizarte langilearen amatasunagatiko baja dela eta lanpostua ordezkatzeko. Instantziak eta dokumentazioa aurkezteko epea 1999ko irailaren 15ean bukatzen da. Oinarriak 1999ko abuztuaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira. Argibide gehiago Antzuolako Udaletxean. Tf. 943 76 62 46

Antzuolan, 1999ko irailaren 9an. Alkatea.

Tabernan lan egiteko zerbitzaria behar da

943 76 59 19

Jatetxean lan egiteko zerbitzaria behar da

610 48 38 96

Tabernan arratsaldez lan egiteko zerbitzaria behar da

943 76 23 71

Jatetxean lan egiteko esperientziadun zerbitzaria behar da

943 76 20 40

ESKAERAK

Neska behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. 943 76 31 86.

30 urtetik gorako emakumea behar da pertsona edadetua zaintzeko. 629 26 39 45.

Umea zaintzeko neska behar da. 943 76 46 54.

Neska behar da etxeko lanetarako. 943 76 31 11.

Bi haur zaindu eta etxeko lanetarako neska behar da. 943 76 15 61 (gauzez).

5. IRAKASKUNTZA**ESKAITZAK**

Ingeles filologian lizentziatuak klaseak eman. 943 76 30 28 (Ana).

OHO/BBB. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. Esperientzia. 943 76 51 23.

Solfeo eta piano klaseak. 943 76 72 69.

OHO eta DBH klaseak. 943 76 26 27 (Ainhoa).

Hezkuntza berezian diplomatuak klaseak irailan. 943 76 31 79.

OHO. 943 76 37 94.

6. IBILGAILUAK**SALDU**

Renault Clio Williams (SS-AP). 945 24 11 25

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Honda NSR 80 motorra salgai. 943 76 31 52.

Golf GTI. 943 76 05 96.

Renault 19 TXE 1.7. Aire egokitua. 250.000 pezeta. 943 76 19 56.

Peugeot 205. Prezio ona 943 76 36 74.

Honda CBR 600 F motorra. 630 56 55 06.

Yamaha 600 Diversion motorra. 943 76 08 83.

Karabana plegablea. 943 76 29 29.

Ford Sierra 2.3 diesela (SS-U). 943 76 40 54.

Kawasaki GPZ 400 motoa. 943 73 18 72 / 73 12 82.

Yamaha Jog Scooter motorra (90 cc.) salgai 943 73 18 72 / 73 12 82.

Citroen Saxo 1.1i. Bi ur-

te. 943 76 12 66 (Xabi).

Chrysler kotxea salgai. 943 76 42 76.

Peugeot 405 Mi 16. 943 76 03 01.

7. ANIMALIAK**SALDU**

Artzain aleman txakurkumeak. Pedigreeduak. 696 05 73 46.

8. DENETARIK**SALDU**

Kanpineko karro denda salgai. 943 76 64 65.

Fotokopiadora, faxa eta lanerako mahaia. 607 34 46 58.

Ume-kotxe estalkiduna. 943 76 06 89.

Karro denda. Ondo ekipatuta. 943 76 42 86.

Minolta argazki kamara, flaxa eta Takumar objektiboa. 943 79 06 15.

Kanpinerako "Igloo" hozkailua. 943 76 41 21.

Bi ohe, idazmahai, altzariak eta apalak. Haritz egurra. 943 76 43 37.

Merida mendi bizikleta, berri-berria. Aluminiozkoa. 943 76 05 88.

Kitarra elektrikoa. 943 76 44 27(Unai).

Idazmakina elektronikoa. 943 76 42 76.

Play station bat salgai: mandoa, memory carda, lau joku eta pistola bat. 943 76 52 16.

GALDU

BH Florida mendi bizikleta galdu nuen uztailan, larrosa-urdina kolorekoa. 943 76 30 12.


Urrezko pultsera galdu dut Matxiategi eta Bideberri tartean. sarituko da. 943 76 36 03.

9. HARREMANAK**KONTAKTUAK**

41 urteko gizon batek emakume bat ezagutu nahi luke. 943 76 40 03.

BESTELAKOAK

Aita bazara edo izateko bazara eta haurra gehienez moduan ez baduzu hezi nahi, deitu. 943 76 65 12 (Emilién).

**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

MEATEGI ETA HERRI-LANETAKO INJINERU TEKNIKOAK, 2
Ibai eskuinaldea. 23096/5

IGELTSEROAK, 3
Bilbo. 23181/3

LH-II ELEKTRONIKO EDO ELEKTRIKOAK
Bilbo. 23064/7

LH AUTOMOZIOIA
Gernika-Bermeo. 23227/2

WINDOWS NT SAREEN OPERADOREA
Bilbo. 23230/3

ELEKTRIZISTAK, 5
Bilbo. 23244/2

PRODUKZIO ARDURADUNA
Ibaizabal. 23271/1

DELINTEATZAILEA
Ibai eskuinaldea. 20927/2

TORNULARI-FRESATZAILEA
Deba Behea. 21529/2

MAHAI ZERBITZARIA
Foronda aireportua. 21641/6

TAILER ARDURADUNA
Bilbo. 21669/4

ALTZARI MUNTATZAILEA
Bilbo. 21760/5

BILTEGIZAINA
Arratia-Nerbioi. 21823/5

ERDIAUTOMATIKAN SOLDATZAILEA
Ibai ezkerrekoa. 21893/4

DENDARIA
Bilbo. 21923/5

BILTEGIRAKO ADMINISTRARIA
Bilbo. 21950/7

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizue, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Euskarazko komunikabide batek

KOMERTZIALA

behar du **PUBLIZITATE SALMENTAN** aritzeko **DEBA GARAIA**n

ESKAINIKO DA: - Lan kontratua
- Soldata finkoa+ komisioa

BALORATUKO DA: - Eskarmentua antzeko lanetan
- Komunikaziorako gaitasuna eta harremanetarako trebezia
- Eskualdean bizitzea

Ezinbestekoa autoa izatea

Interesatuok deitu 943 300 222 telefonora irailaren 14a baino lehen

Begirale lan poltsa

- Jardun elkarteak datorren ikasturtean astebukaeretan Kartzela Zaharrean 11-14 urte bitarteko gaztetxoekin begirale lanak egiteko lan poltsa sortu nahi du.
- Baloratuko dena: Begirale titulua izatea, haur eta gaztetxoekin lan egiteko eta euskalgintzan jarduteko interesa eta esperientzia.
- Parte hartzeko, adinez nagusi izatea ezinbestekoa da.

A, eta ez ahaztu begirale izan nahi duzuenok ikastaroan izena emateko aukera duzuela!

Informazioa:
943 76 08 19



Ainhoa Agirreazaldegia, Lizardi Sarian txapeldun

"Bertsozale gazte gutxi dago Bergaran, auzuetan izan ezik"

Bertsolari Gaztien XXIII. Lizardi Saria irabazi zaban joan zan zapatuan Zarautzen Ainhoa Agirreazaldegik. Txapela, eskultura bat eta 35.000 pezeta eskuratu zittuan 21 urteko bertsolari bergararrak.

G. Lehenago be irabazi dozu Lizardi Sarixa...

E. Bai, 1995. urtian. Txapelketa irabazten zeban bertsolaririk gaztiena izan nintzan; orduan 17 urte neuzkan. Goguan daukat txikittan gurasuekin joaten nintzala bertso saiaua ikustera. Gauza handixa zan Lizardi Sariko finala. Horregatik, lehenengo aldiz irabazi nebanian poz handixa hartu neban.

G. Zer moduz eguakitzeko finala?

E. Ondo, bai ikusliak eta baita zortzi bertsolarixok be, oso gustora pasau giñuan. Zortziko handixan eta txikixan batez be ibili nintzan ondo. Kartzelako saiaua, berriz, tira!

G. Beste bi urtetan aritu zintetzke Lizardi Sarixan. Ondoren?

E. Euskal Herriko txapelketara pasa-

tzeko kanporaketaren bat jokatuko da Gipuzkoakuen artian eta hor erakutsi biharko dot mailla horretan aritzeko gauza naizen ala ez. Horixe da nere erronkia: helduen maillakuetan saio polittak egin, komunikabidietan nabarmendu... Gazte izatiari laga eta helduekin lehiatza da helburua.

G. Datorren eguakitzian Jardunek antolatutako txapelketan helduekin batera ikusiko zaittugu.

E. Bai, urtian era honetako bi edo hiru saio izaten dittut eta hori oso garrantzitsua da neretako. Hala eta be, hori ez da arazua, txapelketetan aritzia beste kontu bat da.

G. Bertso saiauetan formula berririk erabili dira. Zer iritzi daukazu?


E. Ondo dago gauza berririk egitia. Biharrezkuak die eta, gaiñera, saio polittak izaten die. Hala eta be, ez dakit Bergara oso berritzaillia eta bertsozalia dan. Uste dot horrelakuak Bergaran ez leukiela funtzionauko. Bergaran gazte jendia ez doia bertso saiaua ikustera eta bertsozale gaztiak auzuetakuak die.

G. Gustoko bertsolari bat?

E. Egaña. Maillarik onena daukana da. Urtietan da txapelduna eta bere burua egunero prestatzen dihardu. Kirolarixen moduan, egunero entrenatzen da: aktualidadeko liburuak eta zitak irakurri... Bestalde, gaztien artian Iratzuren freskotasuna nabarmenduko neuke eta baita Maialen Lujanbio be. Sekulako mailla erakutsi dau azkenaldixan. 23 urte eduki arren, Egaña, Lizaso edota Sarasuarekin batera egindako saiaua salbatzen ikusi dot.


Orfeoiazen urteurreneko amaiera kontzertua

Bergarako Orfeoiazen 75. urteurreneko ospakizunekin amaitzeko emanaldi sinfoniko-koral handia iragarri da datorren zapatarako, hilak 18, Udal Pilotalekuan. Bergarako Orfeoia eta Bilboko Orkestra Sinfonikoak hartuko dute parte eta Miguel Gonzalez Bastidaren "Stabat Mater" obraren berrestreinaldia



Miguel Gonzalez Bastida

egingo da. Obra hau 1976. urtean estreinatu zen eta harrezgero ez da berriz eskaini. Horretaz gain, Jesus Egiguren konpositore durangarrak Orfeoiaendako proio konposatutako "Zerua goian ta lurra bean" estreinatuko da eta Juan Crisostomo Arriagaren "Obertura, op 1" eta "Pastorala" ere eskainiko dira. Bergarako Orfeoia hainbat abesbatzen laguntza izango du kontzertuan. Guztira 150 ahotsetako abesbatza osatuko da. Kontzertua arratsaldeko 8etarako iragarri da. 1.200 sarrera jarriko dira salgai eta 2.000 pezeta salduko dira (gazte eta langabetuentzat, 1.500 pezeta). Sarrerak Kultur Etxean, Ariznoan eta Lazkanon jarri dira salgai.



izeder

ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak

943 76 71 05. Arruriaga 2

GASTON Y DANIELA

Oihal batek aldatzen du dena

BERGARA

Kruz Gallastegi 3,

☎ 943 76 07 37



Hizkuntza Eskola Ofiziala

Jardiñeta 3 bis, EIBAR Tf. 943 20 06 48

MATRIKULA OFIZIALA 1999-2000 MATRIKULA SOBREA K JASOTZEKO ETA PLAZA HARTZEKO EGUNAK

1. TXANDA

98-99 ikasturtean Eskolako ikasle ofizialak izan direnak. Klasera huts egiteagatik ofizialtasuna galdu dutenak txanda honetatik kanpo geratzen dira.

IRAILAK 16, GOIZEZ:

1. mailatik 3.era ingelesa eta euskara.

IRAILAK 16, ARRATSALDEZ:

1. mailatik 5.era frantsesa.

IRAILAK 21, GOIZEZ:

4. mailatik 5.era ingelesa eta euskara.

2. TXANDA

Ofizialtasuna galdu duten ikasleak eta ofizialak izatera pasatu diren ikasle libreak.

IRAILAK 17, GOIZEZ:

1. mailatik 3.era ingelesa eta euskara.

IRAILAK 17, ARRATSALDEZ:

1. mailatik 5.era frantsesa.

IRAILAK 21, ARRATSALDEZ:

4. mailatik 5.era ingelesa eta euskara.

3. TXANDA

Ikasle berriak H.E.O.etan inoiz matrikulaturik izan ez direnak eta mailakatze-azterketak egin dituzten ikasleak.

IRAILAK 22, GOIZEZ:

1. mailatik 3.era ingelesa, frantsesa eta euskara (18 urtetik gorakoak).

IRAILAK 22, ARRATSALDEZ:

1. mailatik 3.era ingelesa, frantsesa eta euskara (16 urtetik gorakoak).

IRAILAK 23, GOIZEZ:

1. mailatik 3.era ingelesa, frantsesa eta euskara (14 eta 16 urte artekoak).

OHARRAK

- *Beharrezkoa da NANA edo eskatu denaren ziurtagiria aurkeztea matrikula egiteko.*
- *Ikasle ofizial eta libreak H.E.O.eko agiria aurkeztu beharko dute.*
- *Matrikula, sobrean jartzen duen egun eta orduan egingo da.*
- *Maila batean matrikula egiteko, aurreko maila gainditua izan behar da.*
- *98-99 ikasturtean Zikloko azterketa egin dutenek bakarrik egin ahal izango dute matrikula hizkuntza bereko maila ezberdinetan, azterketa horretarako notak ikaslearen maila adieraziko duelarik.*
- *Bulego ordutegia, Astelehenetik ostiralera: 09.30-13.00 eta 15:00-17:30. Ostirala: 09.30-13:00.*
- *Plazak ematerakoan kontutan hartuko da etortzearen ordena.*

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Bitxi garestiak. 2. Errukia. Musika nota. 3. Asiako estatua. Röntgen. Bizkaieraz, gehiegi. 4. Nik hura nuen, eta hark ni... Iridioa. 5. Tatuajea egina duena. Lehenengoa. 6. Bokala. Zamorako ibilgailuetan. Zuhurra. 7. Begirada. Leku hartan. Kontsonante bustia. 8. Laga. Tona. Zerga ezaguna. 9. Nau. Luzera-neurria. 10. Ez eme. Jazarlekua.


Goitik behera

1. Duina denaren nolakotasun. 2. Barre xumea. Ote ar. 3. Bizkaiko udalerrria. 4. Minez betea. Ikas eta Ari. 5. Nor, pluralean. Arabako alderdi espainiarra. Hidrogenoa. Urrea. 6. Nire ustez. Berrogeita hamar. 7. Tantalioa. Neukan. Kontsonante errepikatua. 8. Bokala. Kontsonantea. Aktaren hasieran. Baieztatzeko. 9. Pozik. Moztua. 10. Bizkaiko udalerrria.

Soluzioa

10. Karranta.
9. Alai. Etena.
8. E. L. Ak. Bai.
7. U. H. Au. 6. Nirezat. L.
6. Muntzu. 4. Minda. IKA.
5. Duntzuna. 2. Irra. Otar.
4. Gortik behera.
3. Nauka. Kana. 10. Ar. Aulka.
2. Saa. Han. Te. 8. Utzi. T. BEZ.
1. Etenua. A. 6. A. Za. Zeken.
10. R. Lar. 4. Ninduen. Ir.
9. Diantreak. 2. Urrika. La.
8. Ezker eskuma.

bonofotoa




Miguel Angel Elkorobereizbar

XVIII. mendean Aingeru Goardakoaren santutxuaren gainean eraiki zuten ermitaren arrastoak dira Mintegi kalekoak. Zein da ermita horren izena?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

- Zenbat kontsulta egin dira aurtengo udan Bergarako Turismo Bulegoan?
A- 1.308
B- 2.310
C- 1.563
- Noiz estreinatu zen Miguel Gonzalez Bastidaren "Stabat Mater"?
A- 1974. urtean
B- 1977. urtean
C- 1976. urtean
- Orain dela zenbat urte ipini zen martxan Kirola Euskaraz programa?
A- Orain dela 4 urte
B- Orain dela 6 urte
C- Orain dela 9 urte



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Ibon Perez**entzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Iboni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **1994. urtea** Galde Debalde: **1-B, 2-A, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE

1: 2: 3:

Izen-deiturak:

Telefonoa:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Leader price
esne osoa, litroko tetrabrika
74 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Bere txirrindulari sasoian Espainiako zazpi itzuli eta hiru tour korritu zittuan, Merckx, Ocaña, Gimondi, Janssen eta abarrekin batera. Fagor eta Bic taldietan ibili zan eta 1971n Maxim's kafetegia zabaldu zeban. Hiru seme-alaba dauzka.

Zergatik Maxim's izena?

Dekorazio estiloagatik gehixenbat.

Zure lanerako ezinbesteko ezaugarriak, zeintzuk?

Gogo handixa eta jendiarekin atsegiña izatea.

Lanerako sasoirik onena?

Udia beharbada, astebarruan urtian zihar baiño jende gehixago ibiltzen dalako.

Onduen gertatzen dozun edarixa?

Danak ahalik eta onduen gertatzen saiatzen gara.

Juegarako edari bat?

Alkohola daukan edozer, animau egitten dau eta.

Koktel bat?

Konbinatuak nahixago, *Kubalibria*, adibidez.

Boteila erdi hutsik ala erdi beteta ikusten dozu normalian?

Erdi beteta.

Manixa bat?

Gauzak bere lekuan eukitzia.

Zerekin jartzen zara sutan?

Hainbeste gauzarekin...

Asteko egun bat?

Domekia, jai eukitzen dot eta.

Sukaldari ona zara?

Oso txarra, arrautzak gertatzen bakarrik dakit.

Jasotako eta egindako azken oparixa?

Emazia arduratzen da oparixekin, eta azkena, Realeko bazkide txartela jaso dot.

Jesus Aranzabal

Zer egingo dau Realak aurten?

Bosten barruan sartu.

Bizikletan ibiltzen zara oraindio?

Ez.

Txirrindulari garaiko oroitzapenik onena?

Euskadiko Itzulixan, Eibarren, etapa bat irabazi eta sailkapen orokorrian bigarren geratu nintzenekua, 1970ian.

Ezagutu dozun txirrindularirik onena?

Merckx, dana irabaztera urtetzen zen.

Zure garaian bazegoen dopingik?

Nere kasuan ez, behintzat. Dana dala, hain zailla da dopinga zer dan jakitia...

Tourra, Vuelta, ala Giroa?

Tourra, espeziala dalako. Txirrindulari guztiak topera joaten dira.

Igotako mendaterik gogorrena?

Portet d'Aspet, Pirinioetan.

Gaurko ziklista bat?

Ullrich asko gustatzen jat, Olano...

Zeinek irabaziko du Vuelta?

Ulrichek edo Zullek. Olano podiumian sartuko da.

Ziklismua, telebistatik ala zuzenian?

Zuzenian, gehixago apreziatzen da.

Txirrindularitzako kazetari bat?

Delgado gustatzen jat. Marino be bai...



INGELES

Matrikula zabalik

1999-2000 ikasturtea

Klaseak goizez, eguerdiz eta arratsaldez


Haurrak, gazteak eta helduak

Azterketa ofizialetarako prestakuntza

Enpresak: ingeles tekniko eta komertziala

Ordutegi bereziak: dendariendako, erreleboan lan egiten dutenendako eta etxeoandreendako

ESPOLON



School of English

CAMBRIDGE UNIBERTSITATEKO
ESAMINETARAKO
DEBA-DURANGALDEA ES438
KOMITEKO KIDE

INFORMAZIOA:

Ibargarai 31, barruko plaza.

Tf. eta faxa 943 76 03 53.

Astehenetik eguakitzera 10:00-12:30.

FRANTSES IRAKASKUNTZA

1999-2000
ikasturtea

Izena emateko epea:
irailaren 30era arte.

Informazio gehiago:

Mizpildi 3, 1. ezkerria. BERGARA.

Tf. 943 76 30 55

Ordutegia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00





San Martinetako danborrada, 1977

San Martinak bertan ditugula eta, 1977ko jaietako danborradan, San Martin bezperan (irailaren 15ean), ateratako argazki bat ekarri dugu Erretratu Zaharrera. Gaur egun egiten den moduan, orduan ere elkarteetako banderadunek eta ohorezko damek desfilatzen zuten danborradan.

Bertan ageri diren guzti-guztien izenak ezin izan ditugu lortu eta, beharbada, izenen bat oker egon liteke. Ahaleginak egin ditugu, ordea, guztiak identifikatzeko. Horrelakoetan esan ohi den bezala, gaizki jarritakoak barkatu

eta ondo daudenak kontuan hartu.

Hona hemen bertan agertzen direnen izenak, ezkerretik hasita:

Zutik: Encarna Fernandez, Maria Jesus Ibañez, Maite Cid, Lourdes Arrue, Maria Jesus Uekiola eta Amaia Beitia.

Makurtuta: Ana Karmen Larrañaga, Jaione Gantxegi, Edurne Peña, Eli Elorza, Elena Odriozola eta Lourdes Moñux.

Argazkia: Roman Larrañaga, Bergarako Udal Artxiboko Fondo Audiobisualetik jasotako

PROIEKTU BEREZI BATERAKO argazkiak behar ditugu

Antzinako lanbideen (errementaritza, burdinola, ehungintza, karegintza, larrugintza...) argazki zahar edo berriak baldin badauzkazu, BERRIGARARA edo JARDUNERA ekartzea eskertuko genizuke. Argazki denak itzuli egingo dizkizugu.

Berrigara: Errotalde jauregia. 943 76 03 97. Jardun: Kartzela zaharra. 943 76 08 19

Mujika
geologia



Berezitasunak:
Bizkotxoak
Errelenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



GIARTZU GIMNASIOA

99-00 ekitaldia

Ordua	Astelehena	Martitzena	Eguaztena	Eguena	Eguakitzza
07:30	Stepa Gluteoak Abdom./luzaketak	Mantenimendua Zirkuitu aerobikoa	Aerobica Abdom./luzaketak	Mantenimendua Zirkuitu aerobikoa	Stepa Gluteoak Abdom./luzaketak
07:30	Stepa Gluteoak Abdom./luzaketak	Mantenimendua Zirkuitu aerobikoa	Aerobica Abdom./luzaketak	Mantenimendua Zirkuitu aerobikoa	Stepa Gluteoak Abdom./luzaketak
09:00	Aerobica Gluteoak Abdom./luzaketak	Mantenimendu aerobikoa	Stepa Abdom./luzaketak	Mantenimendu aerobikoa	Aerobica Gluteoak Abdom./luzaketak
10:00	Jubilatuak	Jubilatuak		Jubilatuak	
11:00	Stepa Abdominalak	Makinak Indartze orokorra	Aerobica Gluteoak Abdominalak	Zirkuitoa Makinak TBC	Aerobica Stepa Lunbarrak
15:00	Stepa Abdominalak Lunbarrak		Interval Zirkuituak Gluteoak		Stepa Abdominalak Lunbarrak
17:00	Stepa Gluteoak Abdominalak	Aerobica Abdominalak Pektoralak	Stepa Indartzea Luzaketak	Interval Zirkuitoa Abduktoreak	Aerobica Abdominalak Luzaketak
18:00	Karatea (umeak)	Stepa Abdominalak Gluteoak en luzaketa	Karatea	Interval Zirkuitoa Abduktoreak	Karatea
19:00	Stepa Abdominalak Luzaketak	Interval Zirkuitoa Abduktoreak	Stepa Abdominalak Luzaketak	Aerobica Gluteoak Abduktoreak	Interval Zirkuitoa Abdominalak
20:30	Stepa Abdominalak Lunbarrak	Interval Zirkuitoa Gluteoak Abduktoreak	Aerobica Abdominalak Lunbarrak	Interval Zirkuitoa Abduktoreak Flexioak	(Eguakitzetan, 20:00etan) Stepa Abdominalak Lunbarrak

Pesak eta muskulazioa 19:30etatik 13:00etara eta 14:30etatik 22:00etara astelehenetik eguakitzera
Zapatuetan, 10:00etatik 12:00etara esgrima-klaseak

Eta ikasleek (25 urte arte) prezio bereziak!



Giartzu

Gimnasioa

Boni Laskurain 3

Telefona: 943 76 35 71

sofa
leku

a. eme... interiores



centro
hogar
muebles

grupo



Amuebladora Mondragonesa

a. eme. interiores, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tel.: 79 15 03

a. eme. sukaldeak, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92

centro hogar muebles, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92

sofa leku, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92